

MANIFESTU KOMUNISTA

K. Marx / F. Engels

Alan Woodsen hitzaurrea



Federiko Engels
Fundazioa



MANIFESTU KOMUNISTA

K. Marx eta F. Engels

Itzulpena: Federiko Engels Fundazioko Itzulpen Taldea

Lehenengo argitalpena: 2007ko Azaroa

ISBN: 978-84-96276-42-0

Lege-gordailua: M-52471-2007

Argitaratzaile eta banatzaileak:
Federiko Engels Fundazioa • Euskal Herria Sozialista
www.engels.org • www.euskalherriasozialista.net

AURKIBIDEA

Argitaratzaileen oharra	7
Manifestu Komunistaren Euskarazko edizioari hitzaurrea (Alan Woods)	9

MANIFESTU KOMUNISTA

I. Burgesak eta proletarioak	27
II. Proletarioak eta komunistak	41
III. Literatura sozialista eta komunista	51
1. Sozialismo erreakzionarioa	51
a) Sozialismo feudala	51
b) Sozialismo burges txikia	53
c) Sozialismo alemaniarra edo “egiazko” sozialismo	55
2. Sozialismo kontserbadorea edo burgesa	58
3. Sozialismo eta komunismo kritiko-utopikoak	59
IV. Oposizioko alderdi ezberdinekiko komunistek duten jarrera	63

APENDIZEA

I. Hitzaurrea 1872ko argitalpen alemaniarrari	67
II. Hitzaurrea 1883ko argitalpen alemaniarrari	69
III. Hitzaurrea 1888ko argitalpen ingelesari	71
IV. Hitzaurrea 1890eko argitalpen alemaniarrari	78
V. Hitzaurrea 1892ko argitalpen poloniarrari	84
VI. Hitzaurrea 1893ko argitalpen italiarrari	87

ARGITARATZAILEEN OHARRA

Ohore bat da Euskal Herria Sozialistarentzat eta Federiko Engels Fundazioarentzat Manifestu Komunistaren euskarazko argitalpen berri bat ateratzea. Ez da noski lehendabiziko aldia Manifestua euskaraz ateratzen dena, baina hizkuntza-ren aldetik jada zaharkiturik geratu diren edizioak ikusirik eta garai historiko honetan, mundu mailan klase borroka handitzen ari den unean, munduan zehar berriro ere komunismoaren mamua dabilela ikusten dugunean, Euskal Herriko langile eta gazteengana modu argi eta ulerkor batean irits daitekeen testu bat prestatzen ahalegindu gara.

Burgesiagatik datozen sozialismoaren aurkako erasoen aurrean (ikusi besterik ez daude iraultza venezolarraren aurkako erasoak) beharrezkoa da marxismoaren oinarrietara itzultzea. Orain dela 150 urte baino gehiago idatzi zen Manifestu honek erakutsiko dio irakurleari marxismoaren ideiek inoiz baino aktualitate handiagoa dutela, eta balizko instrumentu bat izaten jarraitzen duela munduko nazio zapaldu guztien askapen nazionalaren eta proletalgoaren askapen sozialaren alde borrokatzeko.

Manifestu Komunistaren

Euskarazko edizioari hitzaurrea

Alan Woods

Manifestu Komunistaren euskarazko argitalpena gertakari benetan garrantzitsua eta nazioarteko edozein langile eta gazte iraultzailek ospatzeko arrazoia da.

Ia bi hamarkada igaro dira Sobiet Batasunaren gainbeheratik. Garai hartan, aldaketa sakonak jazo ziren, egungo mundu mailako egoera eraldatzen ari direnak. “Komunismoaren” kolapsoaren ostean klase agintaria konfidantzaz beterik zegoen. Sistema kapitalista (“merkatu askeko ekonomia”) zen agintari gorenaren. Komunismoaren amaierari buruz hitz egin zuten, Sozialismoaren amaierari buruz, eta baita historiaren amaierari buruz ere.

Gaur egun prozesuaren beste aurpegia ikusten dugu. “Merkatu ekonomiaren” defendatzaileen euforiak bizitza laburra izan zuen. Beraien amets guztiak hauts bilakatu ziren. Egoera osoa bere kontrakoa bilakatu da. Orain, Kapitalaren estrategen artikuluak, diskurtsoak eta adierazpenak pesimismo eta izu sakonez beterik daude. Denbora oso laburrean, ustezko merkatu askeko ekonomiak bere akats guztiak erakutsi ditu. Kapitalismoak bere izaera erreakzionarioa erakutsi du mundu mailan.

Marxismoak prozesu historikoa, azken instantzian, ekoizpen indarren garapenak baldintzatzen duela azaltzen du. Kapitalismoaren indar-motorea merkantzien ekoizpena da, eta batez ere kapital ondasunena. Garai batean zehar kapitalismoak paper aurrerakoi bat jokatu zuen industria, nekazaritza, zientzia eta teknologia garatuz, izaera esplotatzaile eta zapaltzaile izugarria izan zuen arren.

Ekoiuzpen indarrek, jabego pribatuaren eta estatu nazionalaren muga itogarrien aurka, egiten duten errebolta agerian geratzen da egungo krisi global honetan. Maila guztietako ezegonkortasuna da munduko egoeraren ezaugarria. Kapitalaren estrategien beldurrak artikulutik artikulura azaleratzen dira. Honek inflexio puntu bat errepresentatzen du egoera orokorrean.

Ekonomistek “paradigma ekonomiko berriari” buruz idatzi zuten. Erreformistek burgesiari eta honen “merkatu” ideologiari jarraitu zioten. Langile klaseak ez zuen alternatibarik ikusten eta euren arazoak konpontzeko irtenbide indibidualen bila hasi zen. Langileek halako presio izugarria, zorrak, ordu luze akigarriak, estresa edota nekea zituzten arren, posible zen denboraldi batean zehar bizi baldintzen hobetze erlatibo bat lortzea. Erreformismoaren indarra eta batez ere bere eskuin hegoarena eta Marxismoaren indarren isolazioa eta ahultasuna honetan baldintzaturik zeuden.

Egungo nazioarteko ezegonkortasunak ez du aurrekaririk 1945 geroztik. Hau munduko burtsen izugarritzko urduritasunean islatzen da, zeina mundu mailako errezesio baten prelude bat den. Ekonomian, politikan bezala, Estatu Batuetako inperialismoa oihan-suteen baliokidea den egoera batekin aurkitzen da edonon aurrez-aurre. Su bat hiltzen duten bezain azkar, su berri bat pizten da aurrekoa baino intentsitate handiagoarekin. Hauxe da egungo garaiazen izaeraren adierazpen grafiko bat.

Globalizazioa bera orain kapitalismoaren krisi orokor baten adierazpena da. Agintzen ziguten bakezko, oparotasunezko eta demokraziaazko etorkizun loriatsu bat izan beharrean, krisi ekonomikoak, langabezia eta murrizketak ditugu leku guztietan. Erreformen ordeztu kontraerreformak ditugu. “Bakearen dibidenduen” lekuan militarizazio orokorra eta gastu militar erraldoiak. Gerra batek besteari jarraitzen dio.

Honengatik, langileen eta gazteen belaunaldi berriak gertakari hauen atzean aurkitzen diren arazozen izaeraz ohartzen ari dira eta konponbide erradikalen beharra sustraietik ulertzen. Elementu hoberenak irtenbide baten bila ari dira irteerarik gabeko kale honetan, eta hau iraultza sozialistaren aldeko borrokaz soilik lortu daiteke, bai nazio eta bai nazioarteko mailan.

Burgesiaren ideologo nagusiek konfidantza osoz aldarrikatu zuten Marxismoaren heriotza. Izatez, Marxismoa hila aldarrikatu izan da urtero duela 150 urtetatik. Baina ulertezina da hainbeste denbora eta hainbeste diru hilik dagoen ideia bati eraso egiten xahutu izana. Aitzitik, burgesiak oso bizirik dau den ideiak bakarrik erasotzen ditu eta sistema kapitalista izan da bere bankarrota erakutsi duena. Harri bat bera ere ez da mantentzen bestearen gainean Kapitalaren estrategiek duela hogeitun urte egin zituzten aurreikuspenetatik.

Bestalde, batek Manifestu Komunista irakurtzen badu, bi gaztek 1847-48an idatzia, etengabe harriturik geldituko da duen freskotasan eta izaera kontenporaneo harrigarriagatik. Hemen duzue liburu bat, duela 150 urte baino gehiago idatzia, zehaztasunez egungo mundua deskribatzen duena. Izatez, egungo egoerari gehiago dagokio lehen aldiz idatzi zen garaia-ri baino. Manifestuan deskribatzen den mundua ez da 1848ko mundu hura, guk orain bizi dugun hau baizik.

Har ditzagun begibistakoenak diren adibide batzuk. Ekonomia modernoek globalizazioa aurkikuntza berri bat baltz bezala erreklamitzen dute. Bestalde, Marxek eta Engelsek Manifestuaren orrietan iragarri zuten. Kapitalismoak, merkatu nazional bat sortuz hasten denak, nahitaez mundu merkatu bat bilakatzera jotzen duela azaldu zuten. Mundu merkatuaren aginte zapaltzailea gure garaiko fenomenorik garrantzitsuena da. Nazio batek berak ere, oso handia izanik ere, ezin dio aurre egin mundu merkatuaren erakarpen kolosalari; Sobiet Batasuna eta Txina ere ez ziren gai izan hau egiteko.

Izan ere, hau izan zen Sobiet Batasunaren kolapsoaren oinarritzko arrazoietariko bat.

“Herrialde bakar bateko sozialismoaren” teoria erreakzionarioa historiaren garapen osoaren aurkako norantzan doa. Halako ideia bat ezin aurki daiteke Marxen, Engelsen edota Leninen idatzietan. Abominazio bat da ikuspegi marxista batetik. Leninek ez zuen sekula Errusiako Iraultza bere kabuz mantentzeko gertakari bat bezala ulertu, nazioarteko iraultzaren lehenengo maila bezala baizik. 1917 ostean hamai-ka aldiz adierazi zuen iraultzak beste herrialdeetan arrakas-

tarik ez bazuen —batez ere Mendebaldeko herrialde aurrera-tuetan— Errusiako Iraultza ez zela bizirik mantenduko. Leni-nen iragarpena zuzena izan zela froga dezakegu orain.

KAPITALAREN KONTZENTRAZIOA

Burgesen itxaropenen aurka, globalizazioak ez ditu kapitalis-moaren oinarritzko kontraesanak ezereztu, iraganean baino eskala zabalago batean birsortu ditu baizik. Estatu nazioen arteko kontraesanak, desagertzetik oso urrun, aurretik inoiz ikusi gabeko hedadura lortzeraino ari dira bortizten. Gerra bat dugu bestearen atzetik eta gatazka armatuak epidemia kontrolagaitz bat bailitzan zabaltzen ari dira. Hauek kapita-lismoaren krisi terminalaren sintomak dira, eta azken batean, ekoizpen indarren potentzial izugarria jabego pribatuaren eta estatu nazionalaren muga hertsiekin gatazkan aurkitzen de-naren adierazpen bat da soilik.

Manifestuak duela asko iragarri zuen kapitalaren ezinbeste-ko kontzentrazio prozesua, aberastasunaren nahitaezko kon-tzentrazio lizun bihozgabea alde batetik, eta muturreko pobrezia bestetik. Mundu ekonomia osoa ez dute 200 enpresa handik bai-no gehiagok kontrolatzen, batez ere Estatu Batuetan oinarritzen direnak. Banku handiak eta monopolioak geroz eta fusioatua-go daude estatu burokraziarekin. Demokrazia parlamentario formala mahatsondo hosto soil bat da multinazional konpainia erraldioen zuzendaritza kontseiluen diktadura ezkutatzeko.

Garai modernoa gerra inperialisten eta iraultzen garaia da, Leninek liburu benetan moderno hartan azaldu zuen beza-la, Inperialismoa, Kapitalismoaren fase gorena liburuan. Mo-nopolio handien papera, Marxek ordurako iragarri zuena, ez-tabaidaezina den gertakari bat da orain. Historia osoan zehar ez da inoiz hainbeste aberastasun eta botere hain esku gutxi-tan kontzentraturik egon.

Gerra inperialisten aurkako borroka erabat beharrezkoa da langile klasearentzat eta mundu osoko herrientzat. Baina langile klaseak bataila honetan, beste edozein batailatan be-zala, bere banderarenpean, bere programarekin eta bere bo-rroka metodoekin egingo du borroka. Banku handien eta mo-

nopolioen diktadura mantenduz inperialismoa eta gerra abolitu daitezkeenaren ideia ilusio inozo bat da.

Gerra abolitzeko bide bakarra kapitalismoa nazionalki eta internazionalki abolitzea da. Ekoizpenaren planifikazio sozialista demokratiko baten oinarriekin soilik lortuko da Euskal Herriko jendearen oinarrizko arazoak konpontzea eta soilik Europako Herri Sozialisten eta Munduko Federazio Sozialistaren oinarriekin izango da posible gizateriak aurre egin beharreko arazoak ebaztea eta nazioen arteko liskarrak eragiten dituzten oinarri materialak eraldatzea.

MARXISMOA ETA ARAZO NAZIONALA

Marxen eta Engelsen internazionalismoa ez zen kapritxo bat, edota kontsiderazio sentimentalen emaitza bat. Kapitalismoa mundu mailako sistema gisa garatzen denaren izatetik eratorri zen.

Egungo garaiaren paradoxetako bat globalizazioak mundu osoa mundu merkatuaren burdinezko agintearenpean lotu duen bitartean, arazo nazionala, desagertu beharrean, edonon berragertzen ari dela da. Kapitalismoaren zahartzaroko degenerazioa antagonismo nazional eta razialen areagotzean espresatua izaten ari da, ondorio okerrekin.

Marxek eta Engelsek dagokion garrantzia eman zioten arazo nazionalari, baina beti ere “langileen auziari” subordinaturik kontsideratu zuten, hau da, beti langile klasearen eta iraultza sozialistaren ikuspuntutik eksklusiboki kontsideratu zuten. Herri irlandarrari euren babesa eman zioten aginte ingelesaren aurkako askapen nazionalako borrokan, baina beti klase independentziako posizio bat hartuz.

Fenianoak kritikatu zituzten, mugimendu demokratiko iraultzaile irlandarreko hegali aurreratuena, euren borroka metodoengatik, euren hertsitasun nazionalagatik eta langile ingeles mugimenduarekin elkartzeko beharra onartzeari uko egiteagatik. 1867an, Feniano batzuek Londoneko Clerkenwell Presondegian leherketa bat burutu zutenean arrakastarik gabeko atentatu batean euren lagun presoak askatzeko, Marxek Engelsi sumindurik idatzi zion:

“Fenianoen Clerkenwelleko azken leherketa benetan gauza inozoa izan da. Londoneko masek, Irlandarekiko izugarritzeko sinpatia erakutsi dutenak, zentzua galduko dute eta gobernuko alderdiaren besoetara jausiko dira. Batek ezin espero dezake Londoneko proletalgoa bere burua lehertarazten utziko denik emisario Fenianoen ohoretan. Beti dago nolabaitzeko zorigaitza halako sekretuekin, konspirazio mota melodramatikoekin.”

Marx eta Engels ez ziren pazifistak. Marx, Engels, Lenin eta Trotskyk ez zuten sekula ukatu armak erabiltzearen beharra burgesiaren aurka. Baina noski, gauza guztiekin gertatzen den bezala, armak nola erabili behar diren da kontua. Langileen miliziak eta ejertzito gorria gabe Errusiako Iraultza ez zen posible izango adibidez. Marx eta Engels ez zeuden fenianoek ekintza horien aurka arrazoi sentimental edo moralengatik. Erabilgarritasun gabekoak eta kontraeraginkorrak zirelako zeuden aurka, eta lortzen ziren emaitzak beti lortu nahi zirenen aurkakoak zirelako. Estatu burgesa ez ahuldu baizik eta indartu egiten zuten ekintza armatu konkretu hauen ezaugarri erreakzionarioena langile klasea zatitzeko balio zuela da eta hauek ahultzen zituela zapaltzaileen aurrean.

Irakasgai oso garrantzitsuak dira Euskal Herriko langile eta gazteentzat. Zeren batetik, Euskal Herriko borrokalari bikain askoren heriotza edota kartzelaratzea eman da, eta bestetik, Estatu espainiarra eta bere aparatua errepresiboa indartu dira.

IRLANDAKO ESPERIENTZIA

Ipar Irlandako esperientzia abisu bat da. Hamarkadetan zehar Behin-behineko IRAk borroka armatua eraman du aurrea tropa britainiarren erretiratzea bultzatzeko eta Irlandaren batasuna burutzeko. Baina hiru hamarkada eta gero Sinn Féineko eta Behin-behineko IRAko buruzagiek Ostiral Santuko Akordioa sinatu zuten eta ondoren koalizioko gobernu batean sartu dira Ian Paisley protestante erreakzionarioarekin. Beste hitz batzuetan, Irlandaren batasunaren kausa traizionatu dute modu irekian.

Ostiral Santuko Akordioa inperialismo britainiarrarekin eginiko hitzarmen bat da batasun irlandarra alde batera uzten duena. Honek, 30 urte eta gero, Errepublikanismo ez sozialistaren estrategiak, metodoek eta taktikek erabateko porrotean amaitu dutela esan nahi du. Atzo Irlandaren bateratzea armen bidez egiteaz hitz egiten zuten Sinn Feineko buruzagiek borroka armatua ministro karterengatik aldatu dute.

Emaiza bakarra, milaka borrokalari gazteren heriotzaz gain, Sei Konderrietako langile klasea goitik behera zatitzea izan da, eta sektarismo erlijiosoaren erokeria eta elkarrenganako gorrotoa eta mesfidantza aurrekaririk gabeko mailetaraino intentsifikatzea. Zenbat jendeak daki Belfasteko leku ezberdinetan protestanteak eta katolikoak fisikoki bereizten dituzten hormak daudela, eta Ostiral Santuko Akordioa sinatu zenetik hauek ugaritu egin direla? Polarizazio sektarioak okerrera egin du urteetako gatazka armatuagatik eta honek langile klasea lerro nazional eta erlijiosoetan bereizi du. Oinarri hauekin, ez da posible inongo aurrerapausurik batasuna lortze aldera. Irlanda batu baten ikuspegia urrunago dago gaur historiako beste edozein momentutan baino. Behin-behineko IRaren metodoek, beraz, justu lortu nahi zituzten helburuen diametralki kontrakoak diren emaitzak eskuratu dituzte.

Ondorio negatiboenak izan dira Irlandaren askapen nazionalaren borrokarentzat eta langile klasearentzat. Milaka gazte adoretzu suntsituak izan dira, baina Irlandaren birbateratzearen kausak ez du pausu bat bera ere eman aurrera. Bestalde, kausa hamarkadetan atzera eraman da.

Sinn Feinen buruzagiak publikoki ukatzen saiatzen badira ere, Irlandaren unifikazioa agendatik kanpo dago, eta agendatik kanpo mantenduko da denbora luzean zehar. Marxistek hau duela denbora luze aurrikusi zuten. Behin-behineko IRaren borroka armatuaren porrota ezinbestekoa zen hasera-haseratik.

Marxismoak beti egin dio aurre borroka modu konkretu honi. Lehen Mundu Gerran zehar Leninek zera idatzi zuen: "Propaganda egon behar da ekintza terrorista isolatuen aurka (garai hartan "terrorista" hitzak beste konnotazio bat

zuen) eta armadaren sekzio iraultzailearen borroka langile-riaren eta orokorrean esplotaturiko populazioaren mugimenduarekin elkartzearen alde.” (Ezkerreko Zimmerwaldisten Eginkizunak, Collected Works, 21.bol,144. orria) Leninen eta Trotskyren idatzietan espiritu bereko pasarteak aurki ditzakegu.

IRTENBIDERIK EZ OINARRI KAPITALISTEKEN

Leon Trotskyk duela urte asko azaldu zuen: garai modernoan, iraultza demokratiko-burgesaren eginkizunak soilik langile klaseak konpon ditzakeela, iraultza sozialistaren bitartez. Burgesia irlandar ustelak mugaren auzia konpondu ezin dezakeen bezala, euskal burgesia nazionalista ere ez da gai Euskal Herriaren arazoak konpontzeko. Burgesia txiki nazionalistak ere ezin ditu konpondu.

Azken hiru hamarkadetako esperientzia honen froga biritila da. Soilik proletalgoak ebatz dezake arazo nazionala, eta bide iraultzaileak erabiliz bakarrik lor dezake, boterea bere eskuetan hartuz. Ez dago inongo aukerarik oinarri kapitalistetan konpontzeko. James Connolly marxista irlandar handiak duela denbora asko ohartarazi zuen hori:

“Bihar Ejertzito ingelesa botatzen baduzue eta bandera berdea Dublingo Gazteluan eskegi, Errepublika Sozialista baten antolaketari ekiten ez badiozue behintzat zuen esfortzuak alferrikakoak izango dira. Ingalaterrak zuek menderatzen jarraituko du. Beraien kapitalisten bidez menderatuko zaituzte, lurjabe handien bidez, finantziarien bidez, herrialde honetan landatu dituzten merkataritza erakunde eta erakunde indibidualisten bidez, gure amen malkoez eta gure martirien odolez urreztaturik”.

Historiak erakutsi digu zenbat arrazoi zuen Connollyk. Herri euskaldunaren emantzipazio nazionalaren eta sozialaren alde gaude. Baina hau klaseko politiken bitartez soilik lor daiteke, Marxen eta Leninen ideien eta espirituaren berpizkunde baten bitartez. Euskal Herriko arazo nazionala gizartearen eraldaketa sozialistaren bitartez konponduko da, edo bestela ez da inolaz ere konponduko.

MARXISMOAREN IDEIAK ZABALDU!

Mugimendu marxistaren fundazio dokumentuan, Manifestu Komunistan, Marxek eta Engelsek hau azaltzen zuten:

“Komunistek ez dute alderdi bereizitu bat osatzen, beste langile alderdiei kontrajarria.

“Ez dute proletalgoaren interes orokorretatik bereizten den interes propiorik.

“Ez dute langile mugimendua beraiek nahi luketen printzipio berezi batzuetara modelatzeko printzipiorik aldarrikatzen.

“Komunistak langile klasearen beste alderdietatik bereizten dituen zera da, batetik, proletarioen borroka nazional ezberdinetan, behin eta berriz lehen lekuan proletalgo osoaren interes komunak jartzen dituztela, beraien nazionalitatea edozein dela ere; eta bestetik, proletalgoaren eta burgesiaren arteko borroka igaro behar dituen garapen fase ezberdinetan, beti eta edonon mugimenduak osotasunean dituen interesak ordezkatzeko dituztela.

“Ekintzaren unean, beraz, komunistak herrialde guztietako langile alderdietako sektorerik ausartena dira, beste guztiak aurrera bultzatzen dituen sektorea da; aspektu teorikoan, mugimendu proletarioaren baldintzen, ibilbidearen eta emaitza orokorren ikuspegi argi bat izatearen abantaila dute gainerako proletalgoaren gainean.”

Marxismoaren ideiak klaseko gehiengoarengana eta masengana orokorrean zabaltzeko borrokatu beharra dago. Funtsezkoa da gainera erreforma bakoitzaren alde borroka egitea, partziala izanik ere, izan ere kapitalismoarenpean aurrera egiteko eguneroko borrokarik gabe gizartearen eraldaketa sozialista ezinezkoa litzateke.

Langile klaseak bere esperientziaren bitartez bakarrik ikasten du, batez ere gertakari handietako esperientzietatik. Leninek, zeinak langile klasea nola mugitzen den oso ongi ulertzen zuen, beti gomendatzen zien iraultzaileei pazientzia asko izatea: “Pazientziarekin azaltzea” izan zen 1917ko iraultzan Boltxebikeei eman zien aholkua. Leninek, Boltxebikeek boterea lehen aldiz konkistatu ahal izan aurretik masak konkistatu behar izan zituztela ulertzen zuen. Honetarako beharrezkoa zen flexibilitate izugarria izatea.

Marxistok irmo zutitzen gara Marxek, Engelsek, Leninek eta Trotskyk ezarritako ideien, metodoen eta tradizioen gainean. Funtsean ideia hauek euren baliagarritasun eta egunero-kotasun osoa mantendu dituzte. Hala ere, oinarritzko ideiak berrestea ez da nahikoa, hau egiteko nahitaezkoa da masengana iristea.

Boterearen konkista agendan ipini aurretik, lehenbizi masak konkistatu behar dira. Masen artean lan oparo bat egiteko bidean, beharrezkoa da metodo zuzen batzuk elaboratzea. Taktika eta estrategia iraultzailearen auziek garrantzia izugarria hartzen dute.

Internazional Komunistaren Lehen Bost Urteak liburuan, Trotskyk taktikaren eta estrategiaren arteko desberdintasunak azaltzen ditu:

“Taktika bezala klase borrokaren momentuko eginkizun soil baterako edota borrokaren adar baterako balio diguten neurrien sistema bat ulertzen dugu. Estrategia iraultzaileak, bestalde, euren asoziazioaren, koherentziaren eta hazkunderaren bitartez, proletalgoa boterearen konkistaruntz zuzenduko duten ekintzen sistema konbinatu bat hartzen du bere baitan.”

Erlazio dialektiko bat dago taktiken eta estrategiaren artean. Esan dezadan berriro ere marxismoaren taktikek sozialismoaren aldeko borrokaren helburu orokorren finalitateari eta espirituari egokiturik egon behar dutela, nazionalki eta internazionalki. Baina taktikek, langile klasearekin lokarri sendoak ezartzea ahalbidetzeko adinako malgutasuna izan behar dute, klasearen kapa kontzienteenetatik eta aktiboenetatik hasita. Langile aurreratuenekin konektatzen lagunduko diguten kontsignak bilatu behar ditugu eta ohiartzun bat izan euren artean.

Sektarioentzat honako hau liburu itxi bat da. Ez dute argudioen eta pazientziazko lanaren bitartez konbentzitzearen beharrik sentitzen. Bestalde, langileek beraingana hurbildu behar dutela pentsatzen dute. Hau nola burutuko den misterio bat da. Langile klaseak ez du atentziorik ipiniko marxismoarekiko ez badira ideia zuzen batzuk aurretik ipintzen.

Arau orokor bezala, langile klaseak bere esperientziaren bidez bakarrik ikas dezake. Gertakarietatik ikasten dute, ba-

tez ere gizartea bere egunerokotasunetik astintzen duten gertakari handietatik. Sozialismoaren gailentasuna aldarrikatuz soilik —hau da, propagandaren bidez— langileak irabaz daitezkeela pentsatzea erabat utopikoa da. Dialektika marxista formalismoaren eta arrazionalismoaren metodoagatik ordezkatzan du.

Estrategia iraultzailearen kontzeptzioa terminologia militarren eraginetik dator. Paralelismo asko daude klaseen arteko borrokaren eta nazioen arteko gerraren artean. Burgesia eraisteko helburuz, langile klasea eta bere abangoardia erakunde zentralizatu eta disziplinatu boteretsu baten jabe izan behar dira. Euren buruzagi nagusiek aurrera eta atzera noiz egin behar den jakiteko beharrezko ezagutzak izan behar dituzte, bataila noiz egin behar den, edota noiz ekidin behar den jakiteko.

Agindu bakar bat dakien jeneralak: “Aurrera!”, bere ejertzioa puskatxotan apurtzea lortuko du. Baina euren burua iraultzaile intransigentetzat duten askok ez dute agindu bat bera ere gehiago ikasi. Intransigentsia formala iraultzailetasunarekin nahasten dute. Baina honek ez du ezer amankomunean Leninen kontzeptzioekin.

Ezagutza honek, esperientziarekin batera, iraganeko baitailen, garaipenen eta porroten, azterketa zaindu eta zehatz bat suposatzen du. Beste hitz batzuekin, teoriaren ezagutza auresuposatzen da. Teoriarekiko jarrera arduragabe eta mespretxati bat onartezina da, teoria, hein batean, herrialde guztietako langile klasearen esperientzia historikoaren orokortze bat baita. Historiatik ikasten ez duena hau errepikatuzera kondenaturik dago, George Santayana filosofo amerikarrak esan zuen bezala. Alderdi iraultzailea eta bere buruzagitza, beraz, langile klaseraren memoria historikoa dira. Alderdi erreformista bat ez da memoria laburreko alderdi bat besterik.

Dena dela, ezinezkoa da erreformismoa salaketa zaratatsuaren metodoaren bitartez garaitzea. Metodo hauek, izatez, zuzendaritzaren eskuin hegala indartzeko balio izaten dute, eta hauek ez daude batere arduraturik halako erasoetaz. Langile erreformistengana hurbiltzeko bidea oso desberdina da honetatik eta Marxek, Engelsek, Leninek eta Trotskyk maiz azaldu zuten berau.

ZEIN DA EUSKAL HERRIKO GAZTE IRAULTZAILEENTZAKO BIDEA?

Langile klasea ez da burgesia txikia bezalakoa, eta modu erabat ezberdinean mugitzen da. Burgesia txikiak politikoki eze-gonkorra izatera jo ohi du. Ikasle batek bere ideiak kamixeta bat bailiran alda ditzake: astelehenean anarkista, asteartean maoista, asteazkenean trotskista eta honela modu jarrai batean, titulazioa lortu, lanpostu on bat eskuratu, trajea eta korbata ipini eta euren aitaren irudiko kontserbadore bat bilakatzen den arte.

Proletalgoa ez da modu honetan adierazten. Orokorrean denbora bat hartzen du bere erabakia hartu aurretik, baina behin erabakia hartu eta gero, ez da azkar aldatuko. Gazte iraultzaileek masenganako bide bat aurkitu behar dute, langile klasearenganako bide bat. Bizi baldintzen, soldata duin baten, etxebizitzaren, hezkuntzaren eta enpleguaren hobetze baten aldeko masa borroka guztietan hartu behar dute parte. Sozialismoruntz aurrera egiteko eguneroko borrokarik gabe iraultza sozialista ezinezkoa izango da.

Marxismoa eta erreformismoa artikuluan, 1913ko irailaren 12an idatzia, Leninek marxismoaren eta erreformismoaren arteko desberdintasuna azaltzen du:

“Anarkistek ez bezala, marxistek erreformen aldeko borroka, hau da, klase agintariaren boterea suntsitu gabe pertsonen lan baldintzak hobetzeko neurrien aldeko borroka errekonozitzen dute. Aldi berean, halaber, marxistek borroka tinko bat mantentzen dute erreformisten aurka, zeintzuek zuzenki edo zeharka, erreformak eskuratzearen aldeko borrokan langile klasearen helburuak eta ekintzak mugatzen dituzten. Erreformismoa langileentzako iruzur burges bat da, zeinak hobekuntza indibidual batzuk lortuta ere, beti soldatapeko esklabuak mantentzen jarraituko duen, kapitalaren agintea mantentzen den bitartean.

“Burgesia liberalak esku batekin erreformak eman eta bestearekin kendu egiten ditu beti, ezerezero murriztu, langileak esklabizatzeko erabili, klasea talde ezberdinetan zatitzeko erabiltzen ditu honela soldataren esklabutza mantenduz. Honengatik, erreformismoa, oso zintzoa denean ere, praktikan burgesiak erabiltzen duen arma bat bilakatzen da langileak

usteltzeko eta ahultzeko. Herrialde guztietako esperientziak erakutsi du erreformistengan konfidantza ipintzen duten langileak engainatuak izaten direla.

“Eta alderantziz, Marxen teoria asimilatu duten langileek, hau da, kapitalisten aginteak irauten duen bitartean soldatapeko esklabutza nahitaezkoa izango denaz konturatu direnek, ez dute onartuko erreforma burges bakar batek ere engainatuak izatea. Kapitalismoak bizirik jarraitzen duen lekuetan erreformak ez direla oso iraunkorrak eta hedadura handikoak izango ulertuz, langileek baldintza hobeagoen alde egiten dute borroka eta hau soldatapeko lanaren esklabutzaren aurkako borroka intentsifikatzeko erabiltzen dute. Erreformistak langileak zatitzen saiatzen dira, klase borrokatik desbideratzeko kontzesio txikien bitartez. Baina langileek, erreformismoaren faltsutasuna ikusirik, erreformak klase borroka garatzeko eta zabaltzeko erabiltzen dituzte.

“Erreformistek langileengan zenbat eta eragin handiagoa izan, orduan eta ahulago egongo dira hauek, handiagoa izango da burgesiarekiko dependentzia, eta errazagoa izango da burgesiarentzat erreformak ezeztatzea trikimailu ezberdinak erabiliz. Langile klasearen mugimendua zenbat eta independenteagoa izan, bere helburuen aldeko borroka zenbat eta zabalagoa izan, askeago ikusten da erreformismoaren hertsikeriatik eta orduan eta errazago lortzen dute zenbait hobekuntza finkatzea eta erabiltzea.” (V. I. Lenin, Collected Works, 13 bol., 372-75 orriak).

Sindikatuaren eta alderdi erreformisten aktibitate arruntak, batez ere borroka ekonomikoak eta ekintza parlamentarioak, ez dira egungo gizartearen mugetatik haratago igarotzen. Euren taktikek, beraz, ez dituzte egunean eguneko eskaeren eta eginkizunen mugak igarotzen. Baina klase borroka, nahitaez, kapitalismoaren mugetatik haratago doa. Euren esperientzia propioaren biartez langileak gizartearen oinarritzko eraldaketaren baten beharra ulertzera iristen dira.

Urriko Iraultzaren esperientzia, boltxebismoaren ideiak, Leninek eta Trotskyk Hirugarren Internazionalaren lehen lau kongresuetan landu zituzten estrategia eta taktikek balio dute nazioarteko mugimenduaren berrarmatzearen oinarri gisa.

Marxismoa erreforma ausartenen alde dago. Baina egungo baldintzenpean, borroka orokorrik gabe ezin da erreforma esanguratsurik lortu. Langileek grebaren mehatxua erabiliz soldaten igoera izugarriak lor zitzaizketen garaiak amaitu dira. Nagusiek egungo soldaten maila mantentzeko aukerarik ez dutela diote, eta are gutxiago kontzesioak emateko. Sindikatuetakoa eskuin hegalek enpresariekin eta Estatuarekin akordio tentagarriak sina zitzaizketen garaiak historia dira.

Gauza hauekin amesten dutenak iraganean bizitzen ari dira, jada existitzeari utzi dion kapitalismoaren fase batean. Ez dira marxistak utopikoak direnak! Behar dena militantzia kementsu bat da eta klase borrokaren berpizte bat.

Baina azken finean, militantzia ez da nahikoa. Krisi kapitalistako baldintzetan langile klasearen lorpenek ere ezin dute iraupen luzekoak izan. Nagusiek eskuinarekin ematen digutena ezkerrarekin berreskuratuko dute. Soldata igoerak inflazioak eta zerga igoerek anulatuko dituzte. Lantegiak itxi egiten dira eta desenplegua hazi. Erreformatik anulatuak ez direla bermatzeko modu bakarra gizartearen eraldaketa erradikal baten alde borrokatzea da. Gainera, erreformen aldeko borrokek arrakasta izateko aukera bakarra borroka honek hedadura iraultzaile zabalena lortzea da. Historiak erakutsi du klase agintariak dena galtzeko arriskuan sentitzen denean bakarrik egiten dituela kontzesio serioenak.

IKUSPEGI IRAULTZAILEAK

Manifestu Komunistak proletalgoaren politika zientifikoa-ren aroari eman zion hasera. Klase borrokako euren esperientzia oinarri bezala hartuz euskal langile klaseak ondorio aurreratuenak aterako ditu. Langile klasean errotutako marxismoaren indarrak arrakastaren bermerik garrantzitsuena dira.

Egungo garaia historiako unerik ezegonkor eta konbultsoena da. Klase borrokaren berpizte orokor baterako eszenatokia prestaturik dago. Baina ez da erraza izango. Panorama ez da soilik bataila handientzako ireki, baita zuzendaritzaren on-

dorio diren proletalgoaren porrotentzako ere. Masa erakunde-
en zuzendaritzak, sindikatuekin hasita, egoera tamalgarrian
aurkitzen dira edonon.

Langile erakundeen zuzendaritzak burgesiaren presiopera
makurtu dira historiako beste edozein momentutan baino are
gehiago. Mugimenduaren fundazioan oinarri izan ziren ideiak
alde batera utzi dituzte eta ordezkatu beharko luketen klase-
tik dibortziatu dira. Iragana errepresentatzen dute, ez oraina
edo etorkizuna. Paretik kenduak izango dira orain irekitzen
den garai ekaiztsu honetan.

Marxismoaren ideiak ez dira inoiz egun diren bezain ga-
rrantzitsuak eta beharrezkoak izan. Euskal presoek espainiar
kartzeletan aztertuak izaten ari dira, langileek eta ikasleek
aztertuak, iraganeko porrotetatik ikasten saiatzen ari diren
borrokalarri hoiek guztiek aztertuak etorkizuneko garaipenak
prestatzeko.

Ezker Abertzaleak Euskal Herriko militante iraultzailee-
nak biltzen ditu eta garbi dago bere militanteek paper prota-
gonista izango dutela Euskal Herriko marxismoaren zutabeak
eraikitzen. Lan hori bultzatzeko Euskal Herria Sozialista al-
dizkariak marxismoaren ideiak zabaltzeko hartu duen kon-
promisoa berri on bat da mundu osoko zapalduentzat.

Euskal langile klaseak tradizio luze eta loriatsu bat du.
Mugimendu sozialista gaztearen abangoardian zegoen XIX.
mendearen amaieratik. Adorez borrokatu zuen faxismoaren
aurka euskal kapitalistek Bilbo Francoren esku utzi zutenean
tiro bat bera ere bota gabe. Bilboko, Gasteizko eta Iruñeako
langileak Frankoren diktadura gorrotatua eraitsi zuen borro-
karen lehen lerroan egon ziren. Marxismo iraultzailearen
ideiez armaturik, garaitezinak izango dira.

Euskal Herriko langileak eta gazteak paper garrantzitsu bat
jokatzeraz destinaturik daude sozialismoaren aldeko borrokan.
Baina borroka hau ezin da Euskal Herrian bertan bakarrik ira-
bazi. Kapitalismoa eta inperialismoa mundu mailan antolatu-
rik daude. Langile klaseak ere nazioartean antolatu behar du.
Euskal burgesiak gehiago du amankomunean Espainiako ban-
kari eta kapitalistekin euskal langileekin baino, hauek demago-
gia nazionalistarekin engainatzen saiatzen direlarik. Euskal
langileen etsaiak dira, zeintzuek oinarrian langile espainiarren,

frantziarren, britainiarren, errusiarren edota amerikarren interes berberak dituzten.

Nagusien aurkako borrokan langile klaseak duen arma bakarra batasuna da. Langile klasearen batasunaren alde gaude muga guztien gainetik, hizkuntza, kolore, arraza edota erlijio desberdintasun ororen gainetik. Zapalkuntza nazional edo razial ororen aurka egingo dugu borroka, baina guk, benetazko askapena eskuratzeko bide bakar bezala, kapitalismoaren suntsiketa eta Europako Herri Sozialisten eta Munduko Federazio Sozialistaren ezarpena ulertzen ditugu.

Leloa Manifestu Komunistakoa izan dadila:
Herrialde guztietako langileak elkar zaitezte!

London, Irailaren 11a, 2007



Alderdi Komunistaren Manifestuaren lehenengo argitalpenaren azala

Mamu bat dabil Europan zehar: komunismoaren mamua. Europa zaharreko botere guztiak gurutzada santuan elkartu dira mamu horren aurka, Aita Santua eta Tsarra, Metternich eta Guizot¹, erradikal frantsesak eta polizonte alemaniarrek.

Zein oposizioko alderdi ez da komunistatzat izendatuz gaitzetsia izan agintaritzan dauden bere etsaien eskutik? Zein oposizioko alderdik ez die, era berean, bai oposizioko ordezkari aurreratuenek, edota bai etsai erreakzionarioenek ere, komunistaren epiteto iraingarria ipini?

Gertakari honetatik irakaspen bikoitza dator:

Europako potentzia guztiek komunismoa indar bat bezala onartzen dutela.

Komunistek mundu guztiari euren ideiak, helburuak eta tendentziak azaltzeko ordua dela; komunismoaren mamuaren leiendari alderdiaren beraren manifestuarekin aurre egin diezaiotela.

Helburu honekin nazionalitate ezberdinetako komunistak bildu dira Londresen, eta honako Manifestu hau erredaktatu dute, ingelesez, frantsesez, alemanieraz, italieraz, flandrieraz eta danieraz argitaratuko dena.

1. Pio IX Aita Santua, 1846an tronurako aukeratua, "liberal" bat kontsideratzen zen garai haietan, baina Nikolas I.a Tsar errusiarra bezain etsaia zen sozialismoarentzat, azken honek 1848ko iraultzatik baino lehenagotik Europako gendarmearen papera betetzen zuelarik.

Metternich, Inperio austriarreko kantzilerra eta erreakzio europarraren buru errekonozitua, Guizotekin kontaktuan ipini zen, historialari eta ministro frantziar nabarmendu batekin, burgesia finantzieroaren eta industrialaren ideologo eta proletalgoaren etsai amorratu izan zelarik. Gobernu prusiarraren eskaeragatik, Guizotek Marx Paristik erbesteratu zuen. Polizia alemaniarrek komunistak Alemanian bakean ez uzteaz gain, Frantzian, Belgikan edota baita Suizan ere berdin egiten zuten, beraien propaganda indar eta baliabide guztiak erabiliz ezabatzen saiatuz.

I. BURGESA K ETA PROLETARIOAK²

Orain arteko gizarte guztien historia³ klase borrokaren historia da.

Gizon aske eta esklabuak, patrizioak eta plebeioak, jaunak eta morroiak, maisuak⁴ eta ofizialak, hitz batean: zapaltzaileek eta zapalduak aurrez aurre elkarren aurka egin zuten beti, borroka konstante bat mantendu zuten, ixila batzuetan, eta nabarmena eta irekia besteetan; gizarte osoaren eraldaketa

-
2. Burgesia bezala kapitalista modernoek klasea ulertzen da, ekoizpen sozialaren baliabideen jabe direnak eta soldatapeko lana enplegatzen dutenak. Proletario bezala soldatapeko langile modernoek klasea ulertzen da, zeinak euren ekoizpen baliabide propioak gabe, euren lan indarra saltzera beharturik dauden biziraun ahal izateko. (Engelsen oharra 1888ko argitalpen ingelesari).
 3. Hau da, historia idatzia. 1847an, historia idatziaren aurrekari izan zen antolaketaren historia, prehistoria, ia ezezaguna zen. Gerora, Haxthausenek⁵ lurraren jabego komunala aurkitu du Errusian; Maurerrek⁶ hau tribu germaniar guztiek abiapuntutzat hartu zuten oinarri soziala izan zela frogatu du, eta pixkanaka-pixkanaka nekazal komunitatea, lurraren jabego kolektiboarekin, gizartearen forma primitiboa izan dela agertuz joan da, Indiatik hasita Irlandararte. Gizarte komunista primitiboaren barne antolaketa argi ipinia izan da, bere bereizgarri tipikoetan, Morganek⁷ gensaren izaerari buruz eta honek tribuan duen lekuari buruz eginiko aurkikuntza gorenean. Komunitate primitibo hauen desintegrazioarekin gizartearen klase ezberdinetan, eta azkenik, antagonikoetan, bereizten hasi zen. Prozesu hau azaltzen saiatu nahiz Familiaren, jabetza pribatuaren eta Estatuaren jatorrian. (Engelsen oharra 1888ko argitalpen ingelesari).
 4. Zunftbürger, hau da, gremio bateko kidea eskubide guztiekin, bertako maisua, eta ez bere zuzendaria. (Engelsen oharra 1888ko argitalpen ingelesari).
 5. Haxthausen, August von (1792-1868): baroi prusiarra, Nikolas I.aren eskutik Errusiara joan eta bertako nekazal erregimena eta nekazari errusiarren bizitza aztertze baimena jaso zuena (1843-1844). Errusiako nekazal erlazioetan erregimen komunalarren hondarrak deskribatzen dituen obraren egilea.
 6. Maurer, Georg Ludwig von (1790-1872): historialari alemaniarra, Aintzin Aroko eta Erdi Aroko Alemaniaren erregimen sozialak aztertu zituen; ekarpen handia egin zion etaroko komunitatearen historiaren ikerketari.
 7. Morgan, Lewis Henry (1818-1881): etnografo, arkeologo eta historialari iparramerikarra. Indio amerikarren erregimen sozialaren eta bizitzaren ikerketan zehar jasotako datu etnografiko ugari erabiliz, gensaren garapenari buruzko doktrina argudiatu zuen, berau komunitate primitiboko erregimeneko forma nagusia zela azalduz. Honetaz gain, klase aurreko gizartearen historia periodizatzen saiatu zen. Marxek eta Engelsek asko baloratu zituzten Morganen lanak. Marxek Morganen Ancient Society (Aintzinako Gizartearen) liburuaren laburpen detailatu bat egin zuen eta Engelsek Familiaren, jabetza pribatuaren eta Estatuaren jatorria liburu idazteko Morganek bildutako materiala erabili zuen.

iraultzailearekin edota borrokan ari ziren klaseen hondoraketarekin amaitu zen borroka beti.

Aurreko garai historikoetan ia leku guztietan gizartearen erabateko diferentziazioa aurkitzen dugu hainbat estamentutan, baldintza sozialen eskala gradual anitz bat. Aintzinako Erroman patrizioak, plebeioak eta esklabuak aurkitzen ditugu; Erdi Aroan jaun feudalak, basailuak, maisuak, ofizialak eta morroiak, eta gainera, ia klase hauen guztien barnean oraindik gradazio bereziak aurkitzen ditugu.

Gizarte burges modernoak, gizarte feudalaren hondakinetatik atera denak, ez ditu klase kontraesanak abolitu. Klase zaharrak, zapalketa baldintza zaharrak, borroka modu zaharrek berriago batzuegatik ordezkatu ditu soilik.

Gure garaia, burgesiaren garaia, halaber, klaseko kontraesanak sinplifikatu izanagatik bereizten da. Gizarte osoa bereizten ari da, are eta gehiago, bi alde etsaietan, bi klase handitan, zuzenki elkarri aurre egiten diotelarik: burgesia eta proletalga.

Erdi Aroko morroietatik sortu ziren aurreneko hirietako bizilagun askeak; estamentu hiritar honetatik irten ziren burgesiaren lehenengo elementuak.

Amerikaren aurkikuntzak eta Afrikaren zirkunnabigazioak aktibitate eremu berri bat eskeini zioten goraka zetoarren burgesiari. Indiako eta Txinako merkatuek, Amerikaren kolonizazioak, koloniek eginiko elkartrukeak, truke-baliabideen eta merkantzien biderkatzeak orokorrean ordurarte ezagutzen ez zen bultzada eman zioten merkataritzari, nabigazioari eta industriari eta honekin deskonposizioan zegoen gizarte feudaleko elementu iraultzailea garatzea azkartu zuten.

Industriaren aintzinako antolaketa feudalak edo gremialak ezin zuen jada eskaria hasebete, zeina haziz zihoan merkatu berrien irekitzearekin. Manufaktura etorri zen haren lekua hartzera. Estamentu ertain industrialak gremioetako maisuak ordezkatu zituen; korporazio ezberdinen arteko lan banaketa desagertu egin zen tailerraren barneko lan banaketaren aurrean.

Baina merkatuak etengabe hazten ziren; eskaria beti zihotan goraka. Jada manufaktura ere ez zen aski. Lurrinak eta

makineriak ekoizpen industrialak irauli zuten orduan. Industria moderno handiak manufaktura ordezkatu zuen; estamentu erdi industrialaren lekua hartzera industrial milionarioak —benetako ejertzito industrialen ugazabak— burges modernoak etorri ziren.

Industria handiak nazioarteko merkata sortu du, Amerikaren aurkikuntzak jada prestatu zuena. Nazioarteko merkatuak harrigarriro azkartu zuen merkataritzaren, nabigazioaren eta lurreko garraiobideen garapena. Garapen honek, era berean, industriaren geraldian eragin zuen, eta industria, merkataritza, nabigazioa eta burdinbideak hedatzen ari ziren neurrian, burgesia garatuz zihoan, bere kapitalak biderkatuz eta Erdi Aroak utzitako klase guztiak bigarren lekura zokoratuz.

Burgesia modernoa, ikusten dugunez, jada izatez garapen prozesu luze baten fruitua da, ekoizpen eta truke moduen iraultza sail batena.

Burgesiak iragandako eboluzioaren etapa bakoitza dago-kion aurrerakuntza politikoarekin lagundurik joan da. Jaun feudalen agintearen menpeko estamentu bezala, burgesiak elkargo armatu eta autonomo bat eratzen du komun⁸; leku batzuetan hiri errepublika independente bezala; beste batzuetan monarkiaren hirugarren estatu zergadun moduan⁹; gero, manufakturaren aldia, nobleziaren kontrapisua da monarkia estamentalean, absolutuetan, eta orokorrean, monarkia handien harri angularra da, industria handiaren eta merkatu unibertsalaren ezarpenaren ostean burgesiak azkenik Estatu ordezkagarri modernoan botere politikoaren hegemo-

8. Komunak Frantzia hiri jaio berriei deitzen zitzaizen oraindik euren nagusiei eta jaun feudalei lekuko autonomia eta “hirugarren estatu” bezala zituzten eskubide politikoak erauzi aurretik. Termino orokorretan, hemen Ingalaterra burgesiaren garapen ekonomikoaren herrialde tipiko bezala hartu da, eta Frantzia burgesiaren garapen politikoaren herrialde tipiko bezala. (Engelsen oharra 1888ko argitalpen ingelesari).

Honela deitzen zieten Italiako eta Frantziako hirietako biztanleek komunitate hitartari, behin jaun feudalei lehenengo autonomia eskubideak erosi edota kendu ostean. (Engelsen oharra 1890eko argitalpen alemaniarri).

9. 1888ko argitalpen ingelesean, Engelsek erredaktatuan, “hiri errepublika independente”-ri “Italian eta Alemanian bezala” gehitu zaio eta “monarkiaren hirugarren estatu zergadun”-ari “Frantzia bezala”.

nia eskusiboa konkistatu zuen arte. Estatu modernoaren gobernuaz ez da klase burges osoaren negozio komunak kudeatzen dituen kontseilu bat besterik.

Burgesiak paper erabat iraultzailea jokatu du historian.

Boterea konkistatu duen tokian, burgesiak erlazio feudalak, patriarkalak, idilikoak suntsitu ditu; gupidarik gabe urratu ditu gizakia bere “gaineko kide naturalekin” lotzen zituen lotura feudalak, interes hotzarekin zerikusia ez duen gizakien arteko lokarri orori bizirauten ez uzteko, “eskurako ordainketa” krudela; sugar erlijiosoaren estasi sakratua, zalduntasun irrika eta burges txikiaren sentimentalismoa ito ditu kalkulo egoistaren ur izoztuetan; duintasun pertsonala truke-balio sinple bilakatu du; eskrituratutako eta eskuratutako askatasun anitzak merkataritzaren askatasun bakar eta arima gabe-koarengatik ordezkatu ditu. Hitz batean, ilusio erlijiosoek eta politikoez estalitako esplotazioaren lekuan, esplotazio ireki bat, lotsagabe bat, zuzen bat eta anker bat ezarri du.

Burgesiak bere aureola kendu die ordurarte agurgarritzat eta errespetu gupidatsua merezi zutenentzat hartzen ziren ogibideei. Medikua, legelaria, abadea, poeta, zientzia gizona, bere zerbitzari soldatapeko bilakatu ditu.

Familia erlazioak estaltzen zituen sentimentalismo hunkigarritzko beloa urratu du burgesiak, eta diru erlazio sinpleetara murriztu ditu.

Burgesiak ezagutaraztera eman du Erdi Aroko indar erakustaldi bihozgabeak, erreakzioak hainbeste miresten zutenak, bere osagarri naturala zuela alferkeria erlaxatuan. Bera izan da giza aktibitateak egin dezakeena erakusten lehena; Egiptoko piramideekiko, erromatar akueduktuekiko eta katedral gotikoekiko oso ezberdinak diren marabilak sortu ditu, eta herri migrazioekiko eta Gurutzadekiko¹⁰ oso bestelakoak diren kanpainak burutu ditu.

Burgesia ezin daiteke existitu ekoizpen instrumentuak etengabe irauli gabe, eta ondorioz, ekoizpen erlazioak, eta ho-

10. Gurutzadak: Mendebaldeko Europako jaun feudalek eta zaldunek XI. mendetik XIII.era Ekialdea kolonizatzeko hasitako espedizio militarrek, musulmandarrei “Lur Santuen” (Jerusalem eta beste batzuk) jabetza kentzearen lelo erlijiosoa erabiliz.

nekin erlazio sozial guztiak irauli gabe. Lehengo ekoizpen moduaren kontserbazioa, ordea, aurreko klase industrial guztien existentziaren lehen baldintza zen. Ekoizpeneko iraultza eten-gabe bat, baldintza sozial guztien dardara amaigabeak, asaldura eta mugimendu konstanteak garai burgesa aurreko guztietatik bereizten dute. Estankatutako eta lizundutako erlazio guztiak, mendeetan zehar gurtutako sineskeria eta ideien bere komitibarekin, apurtuta geratzen dira; berriak zaharkiturik geratzen dira osifikatu aurretik. Estamentala eta estankatua den oro desagertu egiten da; sakratua den oro profanatu da, eta gizakiak, azkenean, bere existentziaren baldintzak eta elkarrenganako erlazioak lasaiki kontsideratzera beharturik ikusten dira.

Bere produktuei geroz eta irteera handiagoa emateko beharrak bultzatuta, burgesiak mundu osoa igarotzen du. Leku guztietan habia egin behar du, leku guztietan ezarri, leku guztietan loturak sortu.

Mundu merkatuaren esplotazioaren bitartez, burgesiak izaera kosmopolita eman dio herrialde guztietako ekoizpenari eta kontsumoari. Erreakzionarioen atsekaberako, industriari bere oinarri nazionala kendu dio. Aintzinako industria nazionalak suntsituak izan dira eta suntsitzuz doaz etengabeki. Lehengai nazionalak beharrean munduko eskualde urrunenetatik ekarritako lehengaiak erabiltzen dituzten industriengatik ordezkatuak dira, hauen sartzea nazio zibilizatu guztientzat ezinbesteko bilakatzen delarik, eta hauen produktuak ez dira herrialdean bertan bakarrik kontsumitzen, globoaren alde guztietan baizik. Produktu nazionalek asetzen zituzten beharrian zaharren lekuan, herrialde baztertuenetako eta klima desberdinenetako produktuekin asebetetzea izatea eskatzen duten behar berriak sortzen dira. Eskualdeen eta nazioen isolamendu eta autarkia zaharraren lekuan, elkartruke unibertsal bat ezartzen da, nazioen interdependentsia unibertsal bat. Eta hau bai ekoizpen materialari eta bai intelektualari dagokio. Nazio baten ekoizpen intelektualak den onare amankomuna bilakatzen da. Hertsikeria eta eskusibismo nazionalak egunetik egunera ezinezkoago suertatzen dira; literatura herrikoi eta nazional anitzetatik literatura unibertsala eratzen da.

Ekoizpen baliabideen hobekuntza azkarrari eta komunika-
bideen garapen konstanteari esker, burgesiak zibilizazioaren
korrontera eramaten ditu herrestan nazio guztiak, barbaroe-
nak ere. Euren merkantzien prezio baxuek osatzen dute Txi-
nako harresi guztiak suntsitzen dituzten artilleria astuna eta
atzerritarrekiko fanatikoki arerioenak diren barbaroak kapi-
tulatzaera bultzatzen dituzte. Nazio guztiak, lur jo nahi ez ba-
dute behintzat, ekoizpen modu burgesa hautatzera behartzen
ditu, zibilizazioa deiturikoa sartzeraino estutzen ditu, hau da,
burgesak izatera. Hitz batean: bere irudiko eta antzeko mun-
du bat forjatzen da.

Burgesiak landa hiriaren agintera azpiratu du. Hiri izuga-
rriak sortu ditu; hirietako populazioa izugarri hazi du landa-
koarekin konparatuz, populazioaren zati handi bat landa-bi-
zitzako ezjakintasunetik atereaz. Landa hiriaren menpe jarri
duen moduan, herrialde barbaroak edo erdi-barbaroak he-
rrialde zibilizatuen menpe ipini ditu, nekazari herriak herri
burgesen menpe, Ekialdea Mendebaldearen menpe.

Burgesiak geroz eta gehiago ezabatzen du ekoizpen balia-
bideen, jabetzaren eta biztanleriaren zatiketa. Biztanlegoa
metatu du, ekoizpen baliabideak zentralizatu ditu eta jabetza
esku gutxi batzuetan kontzentratu du. Honen ondorio behar-
tua zentralizazio politikoa izan da. Probintzia independente-
ak, elkarren artean ia lokarri federalengatik soilik lotutakoak,
interes, lege, gobernu eta aduana tarifa ezberdinekoak, nazio
bakar batean bateratuak izan dira, gobernu bakar batenpean,
lege bakar batenpean, klaseko interes nazional bakar baten-
pean eta aduana lerro bakar batenpean.

Burgesiak, bere klaseko agintean zehar, zeinak ez duen ia-
ia mende bateko existentzia ere, aurreko belaunaldi guztiek
batera sortu zutena baino ekoizpen indar oparagoak eta itze-
lagoak sortu ditu. Naturaren indarren menperatzea, makinaren
erabilera, kimikaren aplikazioa industrian eta nekazaritzan,
lurrun bidezko nabigazioa, trenbidea, telegrafo elektrikoa,
kontinente osoak laborantzarako asimilatzea, nabigaziorako
ibaiak irekitzea, sorginkeria bidez hiri osoak sortuz lurretik
aterako balira bezala. Aurreko zein mendek susma zezakeen
bederen halako ekoizpen indarrak lozorroan aurkitzen zirenik
lan sozialaren barrenean?

Ikusi dugu, bada, burgesiaren eraketaren oinarri izan diren ekoizpen eta truke baliabideak gizarte feudalean sortu zirela. Ekoizpen eta truke baliabide hauek garapen maila jakin batera iritsi zirenean, gizarte feudaleko ekoizpen eta truke baldintzak, nekazaritzaren eta industria manufaktureroaren antolaketa feudala, hitz batean, jabetza-erlazio feudalak, ekoizpen baliabideen garapen mailarekin bat ez zetozela suertatu zen. Ekoizpena oztopatzen zuten bultzatu beharrean.

Bere lekuan lehia askea ezarri zen, honentzat egokiak ziren konstituzio sozial eta politikoekin eta klase burgesaren dominazio ekonomiko eta politikoarekin.

Gure begien aurrean mugimendu analogo bat ari da gertatzen. Ekoizpen eta trukaketa erlazio burgesak, jabetza-erlazio burgesak, gizarte burges moderno honek guztiak, sorginkeria batekin bailitzan halako ekoizpen eta truke baliabide boteretsuak sortarazi dituenak, bere konjuruekin askatutako infernuko indarrak jada dominatzeko gai ez den mago baten antza du. Duela hainbat hamarkadetatik, industriaren eta merkataritzaren historia ez da ekoizpen baliabide modernoek oraingo ekoizpen erlazioen aurka eginiko erreboltaren historia baino, burgesiaren existentzia eta bere dominazioa baldintzatzen duten jabetza-erlazioen aurkako errebolta baino. Euren aldizkako itzulerekin, geroz eta modu mehatxagarriagoan, gizarte burges osoaren existentziaren ausia planteatzen duten merkatal krisiak aipatzearekin aski da. Merkatal krisian zehar ez da landutako produktuen zati esanguratsu bat soilik suntsitzen sistematikoki, sorturik dauden ekoizpen baliabideen beraien zati esanguratsu bat ere bai. Krisietan zehar, aurreko edozein garaitan absurdutzat hartuko zen izurri sozial bat gizarte osora hedatzen da: gainprodukzioaren krisia. Gizarte bat-batean ustekabeko barbarie egoera batera lehengoraturik aurkitzen da: esan liteke goseak, nazioarteko gerra suntsitzaile batek bere biziraupen baliabide guztietatik gabetu duela; industriak eta merkataritzak ezereztatuak dirudite. Eta hau dena, zergatik? Gizarteak zibilizazio gehiegi, bizi baliabide gehiegi, industria gehiegi, merkataritza gehiegi duela. Dituen ekoizpen baliabideek ez dute jada jabego burgesaren erregimena mesedetzen; alderantziz, boteretsuegiak suertatzen dira erlazio hauentzako, zeintzuek oztopo bat

suposa-tzen duten euren garapenerako; eta ekoizpen indarrek oztopo hau gainditzeko duten aldiro, gizarte burgesa nahas-mendura amiltzen dute eta jabetza burgesararen existentzia mehatxupearan ipintzen dute. Erlazio burgesak estuegiak suertatzen dira bere barnean sorturiko aberastasunak barnean jasateko. Nola gainditzeko ditu krisi hauek burgesiak? Alde batetik, ekoizpen indar masa baten suntsipen behartuarekin; bestetik, merkatu berrien konkistarekin eta zaharren esplotazio bortitza batekin. Zein modutan egiten du, beraz? Krisi zabalago eta bortitza goak prestatuz eta hauek prebenitzeko baliabideak murriztuz.

Burgesiak feudalismoa eraisteko erabili zituen armak orain burgesiaren beraren aurka itzultzen dira.

Baina burgesiak ez ditu heriotza emango dioten armak bakarrik forjatu; arma horiek erabiliko dituzten gizakiak ere sortu ditu: langile modernoak, proletarioak.

Burgesia, hau da, kapitala, garatzen den proportzio berean, proletaria ere garatzen da, langile modernoek klasea, lana bilatzearen baldintza bizi dena eta hau bere lanak kapitala hazten duen bitartean bakarrik topatzen duena. Langile hauek, euren burua pusketaka saltzera beharturik daudenak, merkantzia bat dira beste edozein merkatal artikulua bezala, eta beraz, lehiaren gorabehera guztiei eta merkatuaren fluktuazioei loturik daude.

Makinak erabilpenaren ugartzeak eta lan banaketak berreko izaera guztia kentzen diote langilearen lanari, eta langilearen erakargarritasun osoa galduarazten diote. Hau makinaren erabilpenaren soil bat bultzatzen da, eta soilik operazio sinpleenak erabiltzen zaizkio, monotonoak eta ikasterrezagoak. Beraz, langile batek gaur egun balio duena bizitzeko eta bere leinua mantentzeko behar dituen biziraupen baliabideak murrizten da gutxi gora behera. Baina lan ororen prezioa¹¹, merkantzia ororen bezala, ekoizpenaren kostuen berdina da. Ondorioz, lana zenbat eta gogaitarriagoa izan, orduan eta gehiago murrizten dira soldadak. Are gehiago, makineria eta lan ba-

11. Geroago, Marxek eta Engelsek "lanaren balioa" edota "lanaren prezioa" bezalako kontzeptuak erabili beharrean, Marxek sartutako kontzeptu zehatzagoak erabili zituzten: "lan indarraren balioa", "lan indarraren prezioa".

naketa garatzen diren heinean, handitu egiten da lan kantitatea, bai lan-egunaren luzapenaren bidez, bai denbora jakin batean egitera behartutako lana handitzeagatik, makinaren erriemoaren azkartzeagatik, etab.

Industria modernoak maisu patriarkalaren tailer txikia kapitalista industrialaren lantegi handi bilakatu du. Langile masak, lantegian pilatuak, militarki antolatuak dira. Industriako soldadu soil moduan, ofizial eta subofizial jerarkia oso baten zaintzapean ezarririk daude. Ez dira klase burgesaren, Estatu burgesaren, esklabuak bakarrik, egunero, orduro, makinaren, kapatazaren, eta batez ere, lantegiaren patroia den burges indibidualaren esklabuak dira. Eta despotismo hau orduan eta zekenagoa, gorrotagarriagoa eta asaldagarriagoa da, helburutzat etekina besterik ez duela aldarrikatzean zenbat eta zintzotasun handiagoa adierazi.

Esku lanak trebetasun eta indar gutxiago eskatu ahala, hau da, industria modernoaren garapena zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da emakumeek eta hurrek ordeztzen duten gizonen lanaren proportzioa. Langile klaseari dagokionean, adin eta sexu ezberdintasunek esangura sozial guztia galtzen dute. Lanerako instrumentuak besterik ez daude, hauen kostea adinaren edo sexuaren arabera aldatzen delarik.

Behin langileak fabrikatzailearen esplotazioa jasan eta bere soldata metalikoan jaso duenean, burgesiako beste elementuen biktima bilakatzen da: maizterrarena, dendariarena, mailegariarena, etab.

Industrialari txikiak, merkataritxi txikiak eta errentariak, artisauak eta nekazariak, beste garaietako klase ertainetako azpieneko maila proletalgoaren lerroetara erortzen da; batzuk, euren kapital txikiak enpresa industrial handiak ekiteko iristen ez zaizkielako eta kapitalista indartsuenekiko lehian jausten direlako, besteak, euren abilezia profesionala gutxietsia ikusten delako ekoizpen metodo berrien aurrean. Honela, proletalgoa biztanlegoko klase guztietatik erreklutatzen da.

Proletalgoa garapen fase ezberdinetatik igarotzen da. Burgesiaren aurkako bere borroka bere sorrerarekin hasten da.

Haseran, borroka langile isolatuek hasia da; gero, fabrika bereko langileek; beranduago, herriko ogibide bereko langile-

ek egina da zuzenki esplotatzen dituen burges indibidualaren aurka. Ez dute aski euren erasoak ekoizpen erlazio burgesen aurka zuzentzearekin, eta ekoizpen instrumentuen beraien aurka zuzentzen dituzte; konpetentzia egiten dieten atzerriko merkantziak suntsitzen dituzte, makinak apurtzen dituzte, lantegiei su eman, Erdi Aroko artisauak galdutako lekua indarrez birkonkistatzen saiatzen dira.

Etapan honetan, langileek herrialde osoan barreiatuak eta konpetentziagatik banaturik aurkitzen den masa bat osatzen dute. Langileek masa trinkoak osatzen badituzte, gertakari hau ez da oraindik beraien batasun propioaren ondorio, burgesiaren batasunarena baizik, zeinak bere helburu politikoak eskuratzeko proletalgora mugimenduan jarri behar duen —eta oraingoz egin dezake—. Etapan honetan zehar, proletarioek ez dute borrokatzen, beraz, euren etsaien kontra, euren etsaien etsaien kontra baizik, hau da, monarkia absolutuaren, lur jabeen, burges ez industrialen eta burges txikien aurka. Mugimendu historiko guztia, era honetara, burgesiaren eskuetan kontzentratzen da; baldintza hauetan lortutako garaipen bakoitza burgesiaren garaipen bat da.

Baina industriak, bere garapenean, ez du proletarioen kantidadea soilik handitzen, hauek masa esanguratsuetan ere kontzentratzen ditu; euren indarra handitu egiten da eta horren kontzientzia handiagoa hartzen dute. Proletarioen interesak eta existentzia baldintzak geroz eta gehiago berdintzen dira makinek lanen desberdintasuna ezabatu eta soldatak mailu baxu berera, ia leku guztietan, murrizten dituzten heinean. Burgesen arteko lehia hazkoraren eta honek eragiten dituen merkatal krisien emaitza gisa, soldatak geroz eta gorabeheratsuagoak dira; makinaren hobekuntza etengabeak eta azkarrak langilea egoera are prekarioagoan ipintzen du; langile indibidualaren eta burges indibidualaren arteko kolisioek bi klaseren arteko kolisioen izaera hartzen dute geroz eta gehiago. Langileak koalizioak¹² eratzen hasten dira burgesen aurka eta euren soldaten defentsarako amankomunean jotzen dute. Elkarte iraunkorrak sortzeraino iristen dira beha-

12. 1888ko argitalpen ingelesean, “koalizioak” hitzaren ostean “sindikatuak” hitza gehitua izan da.

rrezko baliabideak segurtatzeko, noizbehinkako talka hauen aurrean neurriak hartuz. Hemen eta han borrokak altxamendu bezala egiten du eztanda.

Batzuetan langileek garaitzen dute; baina garaipen iragankor bat da. Beraien borroken benetako emaitza ez da berehalako arrakasta, geroz eta zabalagoa den langileen batasun bat baizik. Batasun hau industria handiek sortutako komunikabideen hazkuntzak ahalbidetua da eta herri desberdinetako langileak kontaktuan jartzen dituzte. Eta nahikoa da kontaktu hau borroka lokal ugariak, zeinak izaera berberaz horniturik dauden leku guztietan, borroka nazional batean zentralizatzeko, klase borroka batean. Baina klase borroka oro borroka politiko bat da. Eta Erdi Aroko hirietako biztanleen batasuna, euren auzo bideekin mendeak kosta zitzaiena ezartzea, langile modernoek, trenbidearekin, urte gutxi batzutan ezartzen dute.

Proletalgoaren klaseko-erakunde hau, eta beraz, alderdi politikoa, behin eta berriz zulatua da langileen beraien arteko konpetentziagatik. Baina berriro sortzen da, eta beti indartsuago, zurrunago, boteretsuago. Burgesiaren barne liskarrak baliatzen ditu langile klasearen zenbait interes legez onartzera behartzeko; adibidez, hamar orduko lanegunaren legea Ingalaterran.

Orokorrean, gizarte zaharraren kolisioek modu anitzetan laguntzen diote proletalgoaren garapen prozesuari. Burgesia borroka etengabea bizi da: haseran, aristokraziaren aurka; gero, industriaren aurrerapena dela eta euren interesak kontraesanetan sartzen diren sektore bereko burgesiaren aurka, eta beti, azken finean, beste herrialde guztietako burgesiaren aurka. Borroka guztietan proletalgoari dei egitera beharturik ikusten da, bere laguntza eskatzera, honela mugimendu politikora herrestan eramanez. Modu honetan, burgesiak bere hezkuntza propioaren elementuak¹³ ematen dizkie proletarioei; hau da, bere buruaren aurkako armak.

Gainera, ikusi dugun bezala, industriaren garapenak proletalgoaren lerroetara amiltzen ditu klase agintariko kapa

13. 1888ko argitalpen ingelesean, "bere hezkuntza propioaren elementuak"-en lekuan "bere hezkuntza politiko eta orokor propioaren elementuak" ipini da.

osoak, edo, behintzat, bere existentzia baldintzak arriskuan jartzen ditu. Hauek ere proletalgoari hezkuntzako elementu askoren ekarpena egiten diote.

Azkenik, klase borroka bere amaierara iristen ari den aldietan, klase agintariaren desintegrazio prozesuak, gizarte zahar osoarenak, hain izaera biolento eta zorrotza hartzen du ezen klase horren zati txiki batek ukatu egiten duela beragandik eta klase iraultzailera gehitzen dela, etorkizuna bere eskuetan duen klasera. Eta lehen nobleziaren zati bat burgesiara igaro zen bezala, gure egunetan burgesiaren sektore bat proletalgora igarotzen da, partikulariki mugimendu historikoren osotasunaren ulerkuntza teorikora iritsi diren burges ideologoek sektore hau.

Gaur burgesiarekin aurrez aurre dauden klase guztietatik, soilik proletalgoa da egiazki klase iraultzailea dena. Beste klaseak degeneratuz doaz eta desagertu egiten dira industria handiaren garapenarekin; proletalgoa, ordea, bere produktu apartekoena da.

Erdiko estamentuek —industrial txikiak, merkataritxiak, artisauak, nekazariak—, hauek denek burgesiaren aurka borroka egiten dute erdiko estamentu bezala duten existentzia hondamenditik salbatzeko. Ez dira, beraz, iraultzaileak, kontserbadoreak baizik. Are gehiago, erreakzionarioak dira, Historiaren gorpila atzeraka biratzea nahi baitute. Euren aurrean proletalgora igarotzeko ikuspegia dutenean soilik dira iraultzaileak, honela ez beraien oraingo interesak defendatuz, etorkizuneko interesak baizik, euren ikuspuntuak alboratzen dituztelarik proletalgoarenak hartzeko.

Lunpenproletalgoa, gizarte zaharraren kapa baxuenen useltzearen produktu pasibo hori, batzuetan iraultza proletario baten aldeko mugimendura erakarria izan daiteke; hala ere, bere bizi baldintzak direla eta, gertuago dago erreakzioari bere burua saltzera bere azpijokoetan zerbitzatzeko.

Gizarte zaharraren existentziaren baldintzak aboliturik daude jada proletalgoaren existentziaren baldintzetan. Proletalgoak ez du jabetzarik; emaztearekin eta seme-alabekin dituen erlazioek ez dute zerikusirik familia erlazio burgesekin; lan industrial modernoak, kapitalaren uztarri modernoak, berbera denak Ingalaterran edo Frantzian, Iparramerikan edo

Alemanian, proletalgoa izaera nazional orotik gabetzen du. Legeak, moralak, erlijioa aurreiritzi burgesak bakarrik dira berarentzat zeintzuen atzean burgesiaren beste hainbat interes ezkutatzeko diren.

Iraganean agintari bilakatzea lortu zuten klase guztiak lortu berri zuten egoera finkatzen saiatu ziren gizarte osoa euren jabeakuntza moduaren baldintzetara azpiratuz. Proletarioek ezin dituzte ekoizpen baliabide sozialak konkistatu indarrean dagoen jabetze modua abolitzen ez badute, eta beraz, gaur egun arteko jabetze modu guztiak abolitu gabe. Proletarioek ez dute ezer babesteko; jabetza pribatu existentea orain arte bermatu eta segurtatu duen guztia suntsitu behar dute.

Orain arteko mugimendu guztiak gutxiengoek eginak edo gutxiengoen mesedetan eginak izan dira. Mugimendu proletarioa gehiengo handiaren mugimendu propioa da gehiengo handiaren mesedetan. Proletalgoa, oraingo gizartearen kapa berherengoa, ezin da altxa, ezin da zutik ipini gizarte ofizialeko kapek eraturako superestruktura guztia erauzi gabe.

Bere formagatik, baina ez bere edukiagatik, burgesiaren aurkako proletalgoaren borroka haseran borroka nazionala da. Naturala da herrialde bakoitzeko proletalgoak lehen lekuan bere burgesia propioarekin amaitu behar izatea.

Proletalgoaren garapeneko fase orokorrenak zirriborratzean, egungo gizartearen barnean gutxiago edo gehiago ezkutatzeko den gerra zibilaren garapenaren ibilbidea jarraitu dugu, iraultza ireki bat bilakatzen den unerarte, eta proletalgoak, burgesia bortizkeria bidez eraitsiz, bere agintea ezarri arte.

Aurreko gizarte guztiak, ikusi dugun bezala, klase zapalzaileen eta zapalduen arteko antagonismoaren gainean sostengatzen dira. Baina klase bat zapaldu ahal izateko beharrezkoa da, gutxienez, bere esklabutasun existentzia herrestan eramatea ahalbidetuko dioten baldintzak segurtatzea. Morroia, morrontza erregimen bete-betean, komunako kide izatera iritsi zen, burges txikia burgesaren kategoriara igo zen moduan absolutismo feudalaren uztarripean. Langile modernoak, halaber, industriaren aurrerapenarekin goratu beharrean, geroz eta gehiago jeisten da bere klasearen bizi baldintzen azpitik. Langileak miseria erortzen da, eta pauperismoa biztanlegoa eta aberastasuna baino azkarrago hazten da. Begi

bistako da, beraz, burgesia jada ez dela gai gizartearen klase agintari papera burutzen jarraitzeko, ezta honi, lege erregulatzaile moduan, bere klasearen biziraupen baldintzak inposatzeko ere. Ez da gai agintzeko ez baita gai bere esklabuari ere bere biziraupena segurtatzeko esklabutasunaren markoaren barnean; gainbeheran erortzera uztera beharturik ikusten da mantendu behar izaterainoko puntura iritsi arte, esklabuak bera mantendu beharrean. Gizarteak ezin du bere agintepean bizitzen jarraitu; beste modu batean esanda, burgesia-
ren existentzia, datozen garai hauetan, bateraezina da gizartearen existentziarekin.

Klase burgesaren existentziaren eta agintearen oinarritzko baldintza aberastasuna esku partikularretan pilatzea, kapitalaren sorkuntza eta hazkuntza dira. Kapitalaren existentziaren baldintza soldatapeko lana da. Soldatapeko lana langileen arteko konpetentziaren gainean sostengatzen da eksklusiboki. Industriaren garapenak konpetentziatik datorren langileen isolamendua ordezkutzen du elkarketa bidezko batasun iraultzailea sortuz, burgesia prozesu honi aurre egin ezin dion agente inboluntario bat delarik. Honela, industria handiaren garapenak burgesiaren oinenpean aurkitzen diren ekoizte eta ekoitzitakoaren jabetze oinarriak zulatu ditu. Burgesiak, ororen aurretik, bere lurperatzaileak ekoizten ditu. Bere hondoraketa eta proletalgoaren garaipena ekidin ezinak dira.

II. PROLETARIOAK ETA KOMUNISTAK

Zein erlazio dute komunistek proletarioekin orokorrean?

Komunistek ez dute alderdi bereizitu bat osatzen, beste langile alderdiei kontrajarria.

Ez dute proletalgoaren interes orokorretatik bereizten den interes propiorik.

Ez dute langile mugimendua beraiek nahi luketen printzipio berezi¹⁴ batzuetara modelatzeko printzipiorik aldarrikatzen.

Komunistak langile klasearen beste alderdietatik bereizten dituen zera da, batetik, proletarioen borroka nazional ezberdinetan, behin eta berriz lehen lekuan proletalgo osoaren interes komunak jartzen dituztela, beraien nazionalitatea edozein dela ere; eta bestetik, proletalgoaren eta burgesiaren arteko borroka igaro behar dituen garapen fase ezberdinetan, beti eta edonon mugimenduak osotasunean dituen interesak ordezkatzeko dituztela. Ekintzaren unean, beraz, komunistak herrialde guztietako langile alderdietako sektorerik ausartena dira, beste guztiak aurrera bultzatzen dituen sektorea¹⁵ da; aspektu teorikoan, mugimendu proletarioaren baldintzen, ibilbidearen eta emaitza orokorren ikuspegi argi bat izatearen abantaila dute gainerako proletalgoaren gainean.

Komunisten berehalako helburua gainerako langile alderdi guztiek duten bera da: proletarioak klase gisa eratzea, aginte burgesaren eraistea, proletalgoak botere politikoa konkistatzea.

Komunisten tesi teorikoak ez dira munduaren erreformatzailearen batek asmatutako ideia edota printzipioetan oinarritzen

14. 1888ko argitalpen ingelesean, "berezi" beharrean "sektario" agertzen da.

15. 1888ko argitalpen ingelesean, "beste guztiak aurrera bultzatzen dituen sektorea" beharrean "sektorerik aurreratuen" agertzen da.

inondik ere. Existitzen den klase borroka baten baldintza erre-
alen osotasunaren adierazpena dira ez besterik, gure begien
aurrean garatzen ari den mugimendu historiko baten baldin-
tzen adierazpena alegia.

Aurretik existitzen diren jabetza erlazioen abolizioa ez da
komunismoaren ezaugarri propio bat. Jabetza erlazio guztiek
aldaketa historiko etengabeak jasan dituzte, itxuraldaketa
historiko jarraiak. Iraultza frantsesak, esaterako, jabetza feu-
dala abolitu zuen jabetza burgesaren mesedetan.

Komunismoaren ezaugarri bereizgarria ez da jabetzaren
abolizioa orokorrean, jabetza burgesaren abolizioa baizik. Bai-
na jabego pribatu burges modernoak klase antagonismoetan,
hau da, besterengatiko batzuen esplotazioan¹⁶, oinarrituriko
ekoizpen eta ekoizitakoaren jabetzeko moduen azken espre-
sioa da ordea. Zentzu honetan, komunistek euren teoria for-
mula bakar honetan laburtu dezakete: jabego pribatuaren
abolizioa.

Komunistoi pertsonalki eskuratutako jabegoa abolitu nahi
izatea aurpegiratu zaigu, lan propiotik datorren fruitu hori,
gizabanakoaren askatasun, aktibitate eta independentzia oso-
aren oinarria osatzen duen jabetza hori!

Eskuratutako jabetza, lanaren fruitua, esfortzu pertsona-
larena! Burges txikiaren, nekazari txikiaren jabegoari buruz
ari al zarete beharbada, jabego burgesaren aurrekoa izan den
jabego forma horretaz? Ez dugu abolitu beharrik: industriaren
garapenak abolitu du eta abolitzen ari da egunero.

Edo agian jabego pribatu burges modernoari buruz ari za-
rete?

Soldatapeko lanak, proletarioaren lanak, proletarioarentzat
jabetzarik sortzen al du bada? Ezta inondik ere. Sortzen due-
na kapitala da, hau da, soldatapeko lana esplotatzen duen ja-
begoa, eta soldatapeko lan berri bat ekoizti gabe hazi ezin
dena, hau berriro ere esplotatzeko. Egungo forman, jabetza
kapitalaren eta soldatapeko lanaren arteko antagonismoan
mugitzen da. Azter ditzagun antagonismo honetako bi kon-
tzeptuak.

16. 1888ko argitalpen ingelesean, "besterengatiko batzuen esplotazioan" beharrean
"gutxiengoarengatiko gehiengoaren esplotazioan" agertzen da.

Kapitalista izateak ez du ekoizpenean posizio pertsonal huts bat betetzea soilik esan nahi, baita posizio sozial bat mantentzea ere. Kapitala produktu kolektibo bat da; ezin da mugimenduan ipini gizarteko kide askoren elkarrarteko aktibitate bat gabe, eta azken instantzian, gizarteko kide guztien elkarrarteko aktibitate bat gabe.

Kapitala, beraz, ez da indar pertsonal bat; indar sozial bat da.

Ondorioz, kapitala jabego kolektibo bilakatzen bada, gizarteko kide guztiei dagokiena, jabego soziala bilakatzen dena ez da jabego pertsonala. Jabegoaren izaera soziala soilik eraldatzen da. Honek bere klase izaera galtzen du.

Azter dezagun soldatapeko lana.

Soldatapeko lanaren batz besteko prezioa soldataren minimoa da, hau da, langileak bere bizitza langile bezala kontserbatzeko behar dituen biziraupen baliabideen batuketa. Horregatik, soldatapeko langileak bere aktibitate berenganatzen duena justu-justu bere bizitzaren erreprodukziorako behar duena da. Ez dugu inolaz ere lanaren emaitza den jabetze pertsonal hau abolitu nahi, giza bizitzaren erreprodukziorako nahitaezkoa dena (beste lan baten gaineko boterea ezartzeko ere irabazi likidorik uzten ez duen jabetzea, bestalde). Ezabatu nahi duguna jabetze horren izaera miserablea da, langilea kapitala handitzeko ez besterik bizi dadin egiten duena, eta soilik klase agintariaren interesek langilea bizi dadila exijitzen duten neurrian.

Gizarte burgesean, lan bizia ez da lan metatua handitzeko bide bat baino. Gizarte komunistan, lan metatua ez da langileen bizitza handitzeko, aberasteko eta errazago egiteko bide bat baino.

Modu honetan, gizarte burgesean oraina iraganaren menpe dago; gizarte komunistan oraina da iragana menperatzen duena. Gizarte burgesean kapitala independientea da eta pertsonalitatea du, lan egiten duen gizabanakoa independentziarik gabe eta despertsonalizaturik dagoen bitartean. Eta burgesiak halako egoeraren abolizioa pertsonalitatearen eta askatasunaren abolizioa dela dio! Eta arrazoi guztiarekin. Izan ere, pertsonalitate burgesaren, independentzia burgesaren eta askatasun burgesaren abolizioa baita.

Ekoizpen burgesaren egungo baldintzetan, merkataritza askatasuna, erosteko eta saltzeko askatasuna, ulertzen da askatasun gisa. Salerosketa desagertuta, salerosketa askatasuna ere desagertuko da. Salerosketa askatasunari buruzko deklamazioek, gure burgesiaren gainerako harrokeriazko mehatxu liberalek bezala, Erdi Aroko salerosketa kateatuaren eta burges oinperatuaren testuinguruan aplikaturik bakarrik dute zentzua: baina ez ekoizpen burgesaren erlazioen barneko salerosketaren eta burgesia beraren abolizio komunistaren aurrean.

Guk jabego pribatua abolitu nahi izateak izuikaratu egiten zaituzte. Baina, egungo zuen gizartean, jabego pribatua aboliturik dago bertako kideen bederatzi hamarrenentzat; bederatzi hamarren horientzat existitu ere ez delako egiten hain justu. Gizartearen gehiengo handi batek jabetzarik ez izatea bere existentziarako baldintzatatzat duen jabego forma bat abolitu nahi izatea aurpegiratzen diguzue, beraz.

Hitz batean, zuen jabegoa abolitu nahi izateaz salatzen gaituzue.

Hain zuzen ere, horixe da nahi duguna.

Zuentzat, lana kapital, diru, lur errenta, hitz batean, monopolizagarria izan daitekeen botere sozial bilakatu ezin daitekeen momentutik; hau da, jabetza pertsonala jabetza burges bilakatu ezin daitekeen une beretik, mementu horretatik pertsonalitatea ezerezturik gelditzen da.

Onartzen duzue, beraz, pertsonalitate bezala soilik burgesa ulertzen duzuela, jabe burgesa. Eta pertsonalitate honek ezereztua izan behar du hain zuzen. Komunismoak ez dio inori produktu sozialetaz jabetzeko gaitasuna kentzen; jabetze modu honen bitartez besteren lana menderatzeko boterea kentzen du bakarrik.

Jabetza pribatuaren abolizioarekin aktibitate oro geldituko lizatekeela eta alferkeria orokortu bat etorriko litzatekeela egotzi da.

Horrela balitz, duela denbora askotik egongo zen gizarte burgesa utzikeriaren eskuetan jausita, izan ere lan egiten dutenek ez dute ezer bereganatzen eta bereganatzen dutenek ez dute lanik egiten. Objekzio guztia tautologia honetara murrizten da: ez dago soldatapeko lanik kapitalik ez dagoen lekuan.

Ondasun materialen jabetze eta ekoizpen modu komunista-
ren aurka zuzendutako objektio guztiak lan intelektualaren pro-
duktuen jabetze eta ekoizpenera ere zabaltzen dira era berean.
Burgesarentzat klaseko jabetzaren desagertzea ekoizpen osoa-
ren desagertzea adierazten duen bezala, klaseko kulturaren
desagertzea ere kultura ororen desagertzea adierazten du.

Kultura hau, zeinaren galera burgesiak deitoratzen duen,
gizakien gehiengo handiarentzat ez da gizaki hauek makina
bilakatzen dituen heziketa besterik.

Baina ez ezazue gurekin eztabaidatu jabego burgesaren
abolizioari zuen askatasun, kultura, zuzenbide,... nozio burge-
sen irizpideak aplikatzen dizkiozuen bitartean. Zuen ideiak
ere ekoizpen eta jabego burgesaren erlazioen produktu dira,
zuen zuzenbidea zuen klasearen borondatea lege bihurturik
den bezalaxe; borondate honen edukia zuen klasearen esis-
tentziaren baldintza materialek determinatzen dutelarik.

Zuen ekoizpen eta jabego moduetatik eratorritako erlazio
sozialak —ekoizpenaren joanean sortzen eta desagertzen di-
ren erlazio historikoak—, Naturaren eta Arrazoiaren betiere-
ko lege bilakatzea eraman zaituzten kontzeptzio interesatua,
egun desagerturik dauden aurreko klase agintari guztiekin el-
karbanatzen duzue. Aintzinako jabetzarentzat irudikatzen
duzuen, jabetza feudalarantz irudikatzen duzuen, ez zare-
te jabetza burgesarentzat onartzera ausartzen.

Familia abolitu nahi izatea! Erradikalenak ere sumintzen
dira komunisten xede doilor honen aurrean.

Baina zein oinarriren gainean sostengatzen da egungo fami-
lia, familia burgesa? Kapitalaren gainean, lukru pribatuaren
gainean. Erabat garatutako familia burgesiarentzat bakarrik
existitzen da; baina bere konplementua aurkitzen du proletal-
goarentzat familia oro indarrez ezerezten duenean eta prosti-
tuzio publikoan.

Familia burgesa, beraz, desagertu egiten da osagarri honek
existitzeari uzten dionean, eta biak desagertu egiten dira ka-
pitala desagertzen denean.

Gurasoen semeenganako esplotazioa abolitu nahi izatea aur-
pegiratzen diguzue? Krimen hori aitortzen dugu.

Baina lokarri estuenak suntsitzen ditugula esaten duzue,
hezkuntza etxetiarra hezkuntza sozialagatik ordezkatzuz.

Eta zuen hezkuntza, ez al dago ba, baita ere, gizarteak determinaturik, zuen semeak hezten dituzuen gizarteko baldintza sozialengatik, eskolaren bitartez ematen den gizartearen esku-hartze zuzen edo zeharkakoagatik, etab? Komunistek ez dute hezkuntzan gizarteak duen mutur-sartze hau asmatu; bere izaera aldatu eta hezkuntza klase agintariaren eragine-tatik askatu besterik ez dute egiten.

Familiari eta hezkuntzari buruzko deklamazio burgesak, gurasoak seme-alabekin batzen dituzten lokarri gozoei buruzkoak, nazkagarriagoak bilakatzen dira industria handiak proletarioarentzako familia lokarri oro suntsitzen dituen heinean eta haurrak merkatal-gai simple bilakatzen dituenengan, lan instrumentu simple.

Baina zuek, komunistek, emakumeen komunitatea ezarri nahi duzue! —oihukatzen digu burgesia osoak koroan.

Burgesarentzat, bere emaztea ez da ekoizpen instrumentu bat baino. Ekoizpen instrumentuek erabilera komunekoak izan behar dutela entzuten du, eta, noski, emakumeek ere sozializazioarekin zori berbera izango dutela besterik ezin du pentsatu.

Ez du susmatzen emakumeak ekoizpen instrumentu simple bezala duen egoera horrekin amaitzeaz ari garela hain zuzen ere.

Ez dago ezer irrigarriagorik, bestalde, gure burgesei, komunistei egozten zaien ustezko emakumeen komunitate ofizial horrek, eragiten dien izuikara ultramoral hori baino. Komunistek ez dute emakumeen komunitate bat ezartzeko beharrik: ia beti existitu izan da.

Gure burgesek, euren langileen emazteak eta alabak, prostituzio ofiziala ahaztu gabe, euren esanera izatearekin gustora ez eta plazer berezi bat aurkitzen dute elkarren artean emazteak limurtuz.

Ezkonkidetza burgesa, errealitatean, emazteen komunitatea da. Gehienez ere, komunistak hipokritaki disimulatutako emakumeen komunitate bat komunitate zintzo eta ofizial batengatik ordezkatu nahi izateaz salatu daitezke. Begibistakoa da, halaber, egungo ekoizpen erlazioen abolizioarekin hontatik eratortzen den emakumeen komunitatea desagertuko dela, hau da, prostituzio ofiziala eta ez ofiziala.

Komunistak aberria, nazionalitatea, abolitu nahi izateaz ere salatuak dira.

Langileek ez dute aberririk. Ezin zaie kendu ez dutena. Baina proletalgoa, lehen lekuan botere politikoa eskuratu behar duen heinean, klase nazionalaren kondiziora igo¹⁷, nazio bezala eratu, oraindik nazionala da, baina ez inondik ere zentzu burgesean.

Isolamendu nazionala eta herrien arteko antagonismoak egunetik egunera desagertuz doaz burgesiaren, merkataritza askatasunaren eta nazioarteko merkatuaren garapenarekin, ekoizpen industrialaren eta honi dagokien bizi baldintzen uniformetasunarekin.

Proletalgoaren aginteak oraindik eta azkartasun handiagoz desagertaraziko ditu. Ekimen amankomuna, herrialde zibilizatuena behinik behin, euren askapenerako lehen baldintza da.

Indibiduo baten besterengatiko esplotazioa abolitzen den neurri berean abolituko da nazio baten besterengatiko esplotazioa.

Nazioen barnean klase antagonismoa desagertzen den aldi berean desagertuko da nazioen arteko etsaigoa.

Komunismoaren aurka jaurtiki diren salaketek, orokorrean erlijioaren, filosofiarene eta ideologiaren ikuspuntutik abiatuta, ez dute detailezko azterketarik merezi.

Izan ere jakituria handia izan behar al da bizi baldintzen, erlazio sozialen, existentzia sozialaren aldaketa ororekin ideiak, nozioak eta ikusmoldeak, hitz batean, gizakiaren kontzientzia ere aldatzen dela ulertzeko?

Zer erakusten du ideien historiak ekoizpen intelektuala ekoizpen materialarekin eraldatzen dela baino? Edozein arotan gailendu diren ideiak klase agintariarenak izan dira beti.

Gizarte oso bat asaldatzen duten ideiei buruz hitz egiten denean, gizarte zaharraren barnean berri baterako elementuak eratu direla adierazten da soilik, eta ideia zaharren desagerpena bizi baldintza zaharren desagerpenarekin batera doa.

17. 1888ko argitalpen ingelesean, "klase nazionalaren kondiziora igo" beharrean "nazioaren klase zuzendariaren kondiziora igo" agertzen da.

Antzinako munduaren gainbeheran, erlijio zaharrak kristau erlijioak garaituak izan ziren. XVIII. mendean Ilustrazioaren ideiek ideia kristauak garaitu zituztenean, gizarte feudala hil arteko borroka bat ari zen burutzen burgesiaren aurka, orduan iraultzailea zena. Erlijio askatasunaren eta kontzientzia askatasunaren ideiek ez zuten jakintzaren eremuko lehia askearen erreinua besterik islatu.

“Zalantzarik gabe —esango digute— ideia erlijiosoak, moralak, filosofikoak, politikoak, juridikoak, etab. aldatuz joan dira garapen historikoaren ibilbidean. Baina erlijioa, moralak, filosofia, politika, zuzenbidea beti mantendu izan dira eraldaketaren bitartez. Gainera, betiereko egia daude, askatasuna, justizia, etab. bezalakoak, amankomunak direnak gizartearen egoera orotarako. Baina komunismoak betiereko egia hauek abolitu nahi ditu, erlijioa eta moralak abolitu nahi ditu, forma berri bat eman beharrean, eta horregatik sartzen da kontraesanean aurreko garapen historiko osoarekin”.

Zertara murrizten da salaketa hau? Gaur egun arte existitu diren gizarte guztien historia klaseen arteko kontraesanen artean garatzen da, garai ezberdinetan forma anitzak hartzen dituzten kontraesanen artean.

Baina kontraesan hauek izan duten forma edozein izan dela ere, gizartearen zati baten besteagatik esplotazioa gertakari amankomun bat izan da aurreko mende guztietan. Ondorioz, mende hauetako kontzientzia soziala, bere aldaerekin eta aniztasunarekin, beti forma amankomun batzuen artean mugitu izana ez da harritzekoa, klase antagonismoen erabateko desagertpenarekin guztiz desagertuko diren forma batzuen —kontzientzia formen— artean alegia.

Iraultza komunista jabetza erlazio tradizionaletikiko haus-turarik erradikalena da; ez da arraroa bere garapenaren ibilbidean ideia tradizionalekin haustea modurik erradikalenean. Baina hemen uzten ditugu burgesiaren komunismoari egin dizkion objektzioak. Gorago ikusi dugun bezala, langile iraultzarako lehen pausua proletar klase agintari bezala zutitzea da, demokraziaren konkista.

Proletar klase bere aginte politikoaz baliatuko da burgesiari gradualki kapital guztia erausteko, ekoizpen instrumentu guztiak Estatuaren, hau da, klase agintari bezala antolatuta-

ko proletalgoaren eskuetan zentralizatzeko, eta ekoizpen indarren kopurua ahal bezain azkar handitzeko.

Hau, noski, hasera batean ezingo da jabetza eskubide eta erlazio burgesen bortxaketa despotikorik gabe burutu, hau da, ekonomiaren ikuspuntutik urriegiak eta sostengaezinak emango duten neurriak onartu gabe, zeinak mugimenduaren ibilbidean euren burua gaindituko duten¹⁸ eta ezinbestekoak izango diren ekoizpen modu osoa erradikalki eraldatzeko baliabide gisa.

Neurri hauek, jakina, desberdinak izango dira herrialde bakoitzean.

Hala ere, herrialde aurreratuenetan ondorengo neurri hauek ia leku guztietan ipin daitezke praktikan:

1. Lur jabegoaren desjabetzea eta lur errentaren erabilera Estatuaren gastuetarako.
2. Zerga progresibo indartsua.
3. Herentzia eskubidearen abolizioa.
4. Emigratu eta matxinatu guztien jabetzen konfiskazioa.
5. Kredituaren zentralizazioa Estatuaren eskuetan Estatuaren kapitala eta monopolio erregimena dituen Banku nazional baten bitartez.
6. Garraiobide guztien zentralizazioa Estatuaren eskuetan.
7. Estatuaren jabetzako fabrika-enpresen, eta ekoizpen instrumentuen biderkaketa, lur landugabeen goldatzea eta lurren hobetzea, plan orokor baten arabera.
8. Lana egiteko denen betebeharra; ejertzito industrialen antolaketa, batez ere nekazaritzarako.
9. Nekazaritzaren eta industriaren konbinazioa; gradualki hiriaren eta landaren arteko diferentziak desagertzera eramango dituzten neurriak.¹⁹

18. 1888ko argitalpen ingelesean, "euren burua gaindituko duten"-en ostean "beharrezkoa izango da errejimen sozial zaharraren aurkako erasoekin jarraitzea" gehitu da.

19. 1848an "hiriaren eta landaren arteko oposizioa" esaten zen. 1872ko edizioan eta ondorengo edizio alemaniarretan, "oposizio" hitza "diferentzia"-gatik ordezkaturia izan zen. 1888ko argitalpen ingelesean, "hiriaren eta landaren arteko diferentzien desagertzea gradualari ekarpena" egiteaz hitz egin beharrean "hiriaren eta landaren arteko diferentzien desagertzea graduala populazioa herrialdean modu uniformeago batean birbanatuz" esaten zen.

10. Haur guztien hezkuntza publiko eta doako bat; lantegietako umeen lanaren abolizioa egun ezagutzen dugun bezala; ekoizpen materialarekin konbinaturiko hezkuntza erregimena, etab.

Behin garapenaren ibilbidean klase desberdintasunak desagertzen direnean eta ekoizpen guztia gizabanako erkidetuen eskuetan kontzentratzen denean, botere publikoak bere izaera politikoa galduko du. Botere politikoa, zehazki hitz eginez, biolentzia antolatu bat da klase batek bestea zapaltzeko. Burgesiaren aurkako borrokan proletalgoa garaitua izan gabe klase moduan osatzen bada, iraultzaren bitartez klase agintari bilakatzen bada, eta klase agintari bezala, indarrez ekoizpen erlazio zaharrak ezereztatzen baditu, ekoizpen erlazio hauekin batera aldi berean klase antagonismoaren eta orokorrean klaseen existentziarako baldintzak ezabatzen ditu, eta beraz, baita bere klaseko agintea ere.

Gizarte burges zaharra, bere klaseekin eta klase antagonismoekin, ordezkatzuz norbanakoaren garapen askea guztien garapen askearen baldintza izango duen elkarte bat sortuko da.

III. LITERATURA SOZIALISTA ETA KOMUNISTA

1. SOZIALISMO ERREAKZIONARIOA

a) Sozialismo feudala

Euren posizio historikoagatik, aristokrazia frantziarra eta ingelesa gizarte moderno burgesaren aurkako libeloak idaztera deiturik zeuden. 1830eko uztailleko iraultza frantziarrean eta erreforma parlamentarioaren²⁰ aldeko mugimendu ingelesean, berriro ere etorri-berri gorrotatuaren kolpeen aurrean erori ziren. Handik aurrera ezin zitekeen ezta borroka politiko serio bati buruz ere hitz egin. Ez zitzaion borroka literarioa baino geratzen. Baina literatur eremuan ere, Errestaurazio²¹ garaiko fraseologia zaharra aplikatu ezina izatera iritsi zen. Begikotasuna sortzeko, beharrezkoa zen aristokraziak bere interesak kontutan hartzen ez zituenaren itxura egitea eta burgesiaren aurka egiten zuen salaketa akta langile klase zapalduaren interesen alde soilik formulatzen zuela erakustea. Era honetara, bere nagusi berriaren aurka kantu satirikoak konposatzeko eta beldurrak profezia makurrak xuxurlatzeko gozamenak izan zuten.

Honela jaio zen sozialismo feudala, jeremiaden eta paskinen nahasketa, iraganeko oihartzunen eta etorkizunari buruz-

20. Hauteskunde eskubidearen erreformari buruz ari da. Honen "bill"-a Komunen Ganbara ingelesak 1831an onartua izan zen, Lorren Kamarak behin-betiko berretsiz 1832ko ekainean. Erreforma nekazal aristokraziaren eta aristokrazia finantziarioaren monopolio politikoaren aurka zuzendurik zegoen, eta burgesia industrialaren kideei Parlamentuan sartzeko aukera eman zien. Proletalgoa eta burgesia txikia, erreformaren aldeko borrokan indar garrantzitsuenak izan zirenak, burgesia liberalak engainaturik geratu ziren eta ez zuten inolako eskubiderik jaso.

21. Hemen ez da ari 1660-1689ko Errestaurazio ingelesari buruz, 1814-1830eko Errestaurazio frantsesari buruz baizik (Engelsen oharra 1888ko argitalpen ingelesari).

ko mehatxuen nahastura. Noizbait bere kritika mikatz, garraz eta burutsuak burgesia bihotzean zauritu bazuen ere, historia modernoa ulertzeko zuten erabateko gaitasun ezak kritika hauek erridikuluaz estaltzen amaitu zuen.

Bandera gisa, jaun hauek proletarioaren eskale zakua altxatzen zuten, herria erakartzeko helburuarekin. Baina herria hurbiltzen zen aldiro, jaun hauen ipurmasailak armarri feudal zaharraz apainduta zeudela konturatzen ziren eta barrerak algara handi eta lotsagabeekin sakabanatzen ziren.

Legitimista frantziarren eta “Ingalaterra Gaztearen”²² zati batek munduari ikuskizun komiko hau eskeini diote.

Feudalismoaren gerlariek beraien esplotazio modua burgesiararen desberdina dela baieztatzen dutenean, gauza bat ahazten dute, beraiek baldintza eta zirkunstantzia erabat desberdinetan eta egun zaharkituak direnetan esplotatzen zutela. Beraien agintepEAN proletalgo modernorik ez zela esaten dutenean, ahaztu egiten dute burgesia modernoa hain zuzen ere euren erregimen sozialaren beharrezko enbrioi bat dela.

Bestalde, euren kritikaren izaera erreakzionarioa hain gutxi mozarrotzen dute, ezen burgesiaren aurka aurkeztzen duten salaketa nagusia zera dela, burgesiaren erregimenarenpean gizarte ordena zaharra puskatan apurtuko duen klase bat sortu izana. Burgesiari leporatzen diotena ez da batez ere proletalgo bat orokorrean sortuarazi izana, proletalgo iraultzaile bat sortuarazi izana baizik.

Horregatik, praktika politikoan, langile klasearen aurkako errepresio neurri guztietan hartzen dute parte. Eta egunero ko bizitzan, fraseologia puztu bat erabiltzen badute ere, urrez-

22. Legitimista frantsesak: Nekazal jabego handiaren interesak errepresentatzen zituen Borbondar dinastiaren jarraitzaileak, dinastia hau 1830ean eraitsia izan zelarik. Aristokrazia finantzieroaren eta burgesia handiaren babesa zuen Orleansarren dinastiaren aurka borroka eginez, legitimisten zati batek demagogia sozialera jo ohi zuten, euren buruak langileen defendatzaile gisa agertuz esplotatzaile burgesen aurrean.

“Ingalaterra Gaztea”: politikari eta literato ingelesen taldea, Alderdi Kontserbatzaileko militanteak (tory-ak), XIX. mendeko 40. hamarkadaren haseran sortuak. Burgesiaren botere ekonomiko eta politikoaren goraldiaren aurrean nekazal aristokraziak zuen deskontentua adieraztean, “Ingalaterra Gaztea” taldeko kideek metodo demagogikoak erabili zituzten langile klasea beraien eraginarenpean ezartzeko eta burgesiaren aurkako borrokan erabiltzeko.

ko fruituak²³ biltzeko eta ohorea, maitasuna eta fidelitatea artileagatik, azukre-erremolatxagatik eta pattarragatik ordezkatzeko bikain konpontzen dira²⁴.

Apaiz eta jaun feudala beti eskutik joan diren modu berean, sozialismo klerikala ere sozialismo feudalaren eskutik doa.

Aszetismo kristaua berniz sozialista batekin estaltzea bezain erraza. Kristautasuna ere ez al zen ba jabetza pribatuaren, ezkonkideztaren eta Estatuaren aurka altxatu? Honen lekuan ez al zituen ordea karitatea eta pobrezia, zelibatoa eta haragiaren mortifikazioa, bizitza monastikoa eta eliza predikatu? Sozialismo kristaua ez da apezteriak aristokraziaren etsipena bedeinkatzeko erabiltzen duen ur bedeinkatua besterik.

b) Sozialismo burges txikia

Aristokrazia feudala ez da burgesiak eraitsitako klase bakarra, eta ezta bere existentzia baldintzak geroz eta okerragora eta desagertzera jotzen duten klase bakarra ere gizarte burges modernoan. Erdi Aroko hirietako biztanleak eta nekazari txikiak estamentua izan ziren burgesia modernoaren aintzindariak. Gutxiago garatutako industria eta merkataritza dituzten herrialdeetan, klase honek geraldian den burgesiaren alboan jarraitzen du begetatzen.

Zibilizazio modernoak garatu den herrialdeetan burges txikiak klase berri bat sortu da —eta, gizarte burgesaren osagarri bezala, sortze prozesuan jarraitzen du etenik gabe— proletargoaren eta burgesiaren artean. Baina klase hau osatzen duten gizabanakoak etengabe proletargoaren lerroetara amildurik ikusten dira kompetentzia dela eta, eta industria handiaren garapenarekin, gizarte modernoko frakzio independente bat be-

23. 1888ko argitalpen ingelesean, “urrezko fruituak”-en ostean “industriaren arbolak” gehitu da.

24. Hemen Alemaniari egiten zaio erreferentzia, lur jabe handiek eta “junkerrek” euren administrariak laguntzaz lurren zati handi bat euren kontura landatzen dutelarik eta gainera, erremolatxa-azukre eta alkohol destilategi fabrika handiak dituztelarik. Aristokrata britainiar aberatsenak ez dira hainbestearaino iritsi; baina beraiek ere badakite nola konpentsa dezaketen errentaren murrizketa, euren izenak elkarre anonimoak eratzen dituzten zalantzazko fama duten klase guztietako fundatzaileei lagaz. (Engelsen oharra 1888ko argitalpen ingelesari).

zala desagertuko diren unea hurbiltzen ikusten dute, merkataritzan, manufakturan eta nekazaritzan kapatazek eta enplegatuek ordezkatuak izateko.

Frantzia bezalako herrialdeetan, nekazariak biztanlegoaren erdia baino dexente gehiago osatzen dutenean, naturala zen burgesiaren aurkako proletalgoaren kausa defendatzen zuten idazleek burges txikiaren eta nekazari txikiaren irizpideak erabiltzea eta langileen kausa burgesia txikiaren ikuspegitik defendatzea. Honela eratu zen sozialismo burges txikia. Sismondi²⁵ da literatura honen adierazle handiena, ez soilik Frantzian, baita Ingalaterran ere.

Sozialismo honek ernetasun handiarekin analizatu zituen ekoizpen erlazio modernoek kontraesan bereiztezinak. Ekonomisten apologia hipokritak biluztu zituen. Makineriaren eta lan banaketaren ondorio suntsigarriak, kapitalen eta lur jabeen kontzentrazioa, gainprodukzioa, krisiak, burges txikiaren eta nekazarien ezinbesteko hondamendia, proletalgoaren miseria, ekoizpeneko anarkia, aberastasunen banaketaren eskandaluzko desberdintasun, nazioen arteko gerra industrial suntsitzailea, ohitura zaharren, familia erlazio zaharren, nazionalitate zaharren disoluzioa, modu ukaezin batean frogatu zituen.

Hala ere, sozialismo honen eduki positiboa honetan datza, bai ekoizpen eta truke baliabide zaharrak berrezartzeko, eta hauekin batera jabego erlazio zaharrak eta gizarte zahar guztia ezartzeko nahiean, bai ekoizpen eta truke baliabide modernoak jabego erlazio zaharren markoan enkajatzea nahi izatean, apurtuak izan ziren erlazioetan, nahitaez baliabide modernoek apurtu zituztenak. Kasu batean eta bestean, sozialismo hau aldi berean erreakzionarioa eta utopikoa da.

Manufakturarentzat gremio sistema; nekazaritzarentzat erregimen patriarkala; hona hemen hauen azken hitza.

25. Sismondi, Jean Charles Leonard (1773-1842): ekonomilari eta historialari suitzarra, sozialismo burges txikiaren ordezkaria. Ez zituen ekoizpen kapitalista handiaren tendentzia progresiboak ulertzen, errejimen zaharrean eta ohitura zaharretan, industriaren antolaketa gremialean eta nekazaritza patriarkalean ereduak bilatzen saiatu zen, baina hauek ez zuten zerikusirik Sismondiren garaiko baldintza ekonomiko eraldatuekin.

Ondoren jasandako garapenean tendentzia hau ixilaldi koldar batean erori da²⁶.

c) Sozialismo alemaniarra edo “egiazko” sozialismoa

Frantziako literatura sozialista eta komunista, burgesia agintariaren uztarripean jaio zena aginte honen aurkako borrokaren adierazpen literario gisa, Alemanian burgesiak absolutismo feudalaren aurkako bere borrokari ekin berri zion unean sartu zen. Saloi alemaniarretako filosofo, erdifilosofo eta burutsuek irrikaz beterik egin zuten jauzi literatura honen gainera; baina literatura frantziarra Alemaniara inportatzearekin Frantziako baldintza sozialak ordea ez zirela inportatu ahaztu zitzairen. Baldintza alemaniarretan, literatura frantziarrak berehalako esangura praktikoa galdu zuen eta izaera literario soil hartu zuen. Giza esentziaren errealizazioari buruzko alferrikako espekulazio baten antza izan behar zuen batez ere. Era honetara, XVIII. mendeko filosofo alemaniarrentzat lehenengo iraultza frantsesaren aldarrikapenak ez ziren orokorrean “arrazoi praktikoen” aldarrikapenak baino, eta Frantziako burgesia iraultzailearen borondatearen adierazpenek, filosofo alemaniar hauen arabera, ez zituzten borondate puruaren, borondateak izan behar duen bezelakoaren, egiazko giza borondatearen legeak baino adierazten. Literato alemaniarren lan osoa ideia frantses berriak euren kontzientzia filosofiko zaharrarekin adostasunean ipintzera murriztu zen esklusiboki, edota zehatzago esanda, ideia frantsesak euren iritzi filosofikoetatik abiatuta asimilatzeraz.

Eta asimilatu zituzten orokorrean atzerriko hizkuntza bat asimilatzen den moduan: itzulpenaren bidez.

Gauza jakina da fraideek santu katolikoen bizitzaren deskribapen absurduak gainjarri zituztela paganismo zaharraren obra klasikoen eskuizkribuen gainean. Literato alemaniarrek kontrako aldera jokatu zuten literatura profano frantsesarekiko. Beraien absurdu filosofikoak original frantziarrenpean ipini

26. Argitalpen ingelesean azken parrafo honek honela dio: “Azkenik, gertakari historiko ukaezinek ilusio faltsuen efektu mozhortzaile guztiak ezereztatu zituztenean, sozialismo mota honek abaildura miserable batean amaitu zuen”.

zituzten. Adibidez: diruaren funtzioaren kritika frantsesarenpean, “giza esentziaren enajenazioa” idazten zuten; Estatu burgesaren kritika frantziarrarenpean “abstraktu unibertsalaren boterearen ezabapena” zioten, eta honela era etengabea.

Kritika frantsesean egin zuten fraseologia filosofikoaren tartekatze honi “ekintzaren filosofia”, “egiazko sozialismoa”, “sozialismoaren zientzia alemaniarra”, “sozialismoaren fundametzio filosofikoa”, etab. deitu zioten.

Modu honetan literatura sozialista-komunista frantsesa erabat zikiratua izan zen. Eta alemaniarren eskuetan klaseen arteko borrokaren espresio izateari utzi zionez, alemaniarrek “hertsitasun frantziarraren” oso gainetik zeudela, eta egiazko beharren lekuan, egiaaren beharra defendatu zutela pentsatu zuten, proletalgoaren interesak beharrean, giza esentziaren interesak, gizakiarenak orokorrean defendatu zituztela, inongo klaseren edota errealtateren kide ez den gizakiarena, zeina fantasia filosofikoaren zeru lanbrotsuan baino ez den bizi. Sozialismo alemaniar hau, bere eskola ariketa traketsak hain serioski hartzen zituen eta burrunba kalakariekin bere ideiak lau haizetara zabaltzen zituen, pixkanaka-pixkanaka bere inozentzia sasijakintsua galduz joan zen.

Burgesia alemaniarren borrokak, eta batez ere burgesia prusiarrarenak, feudalen eta monarkia absolutuaren aurka, hitz batean, mugimendu liberalak, izaera serioago bat hartzen zuen.

Gisa honetan, “egiazko sozialismoari” mugimendu politiko honi errebindikazio sozialistak kontrajartzeko aukera hain gutiziatua eskaini zitzaion, liberalismoaren, Estatu ordezkargariaren, lehia burgesaren, prentsa askatasun burgesaren, eskubide burgesaren, askatasun eta berdintasun burgesaren aurka anatema tradizionalak suntsitzeko aukera, eta masa herrikoiei irabazteko ezer ez zutela predikatzeko aukera, mugimendu burges honekin egia esateko dena galduko zutela esanez. Sozialismo alemaniarrek, zeina frantsesaren gatzik gabeko oihartzun huts bat zen, kritika frantsesak gizarte burges modernoaren aurreuposatzen zuela ahaztu zuen, bere bizi baldintza materialekin eta eraketa politiko egokiarekin, hau da, Alemanian oraindik konkistatzekotan zeuden aurrebaldintzeekin hain zuzen ere.

Alemaniano gobernu absolutuentzat, bere elizgizon, kontseilari, landako zaldun²⁷ eta burokrata segizioarekin, sozialismo hau burgesiaren aurkako txorimalo egoki bat bilakatu zen, burgesia modu mehatxagarrian altxatzen ari baizen.

Hau, gobernu hauek langile alemaniarren altxamenduei erantzuteko erabiltzen zituzten latigokaden eta tiro garratzen konplemetu zozagarrri bilakatu zen.

“Egiazko” sozialismoa era honetara gobernuak burgesia alemaniarren aurka erabilitako arma bilakatu bazen, honetaz gain, modu zuzen batean, interes erreakzionario bat adierazten zuen, burges txiki alemaniarren interesa. Burgesia txikiak, XVI. mendeak oinordetzan utziak eta ordutik forma anitzetan etengabe birjaioak, Alemanian egun ezarritako ordenaren egiazko oinarri soziala osatzen du.

Berau mantentzea Alemanian ezarritako ordena kontserbatzea da. Burgesiaren gailentasun industrialak eta politikoak heriotz ziur batekin mehatxatzen du: batetik, kapital kontzentrazioengatik, eta bestetik, proletalgo iraultzaile baten garapenagatik. “Egiazko” sozialismoak tiro bakar batekin bi txori hil zitzakeela iruditzen zitzaion burgesia txikiari. Eta hau epidemia bat bailitzan zabaldu zen. Espekulazioaren armiarma sarearekin ehunduta, lore erretrikoez brodatutik eta ihintz sentimental batez bainaturik, sozialista alemaniarrek euren hiruzpalau “betiereko egia” gordin estaltzeko erabilitako erropaje fantastiko honek ez zuen merkantzia honen eskaria igoarazi baino egin halako publikoaren aurrean.

Bere aldetik, sozialismo alemaniarrek burgesia txiki honen ordezkari arranditsua izatera deiturik zegoela ulertu zuen geroz eta hobekiago.

Nazio alemaniarra nazio ereduia zela eta mesokrata alemaniarra gizaki ereduia zela aldarrikatu zuen. Gizaki eredu honen desohore guztiei zentzu ezkutu bat eman zien, zentzu go-reno eta sozialista bat, errealtatearen aurkakoa. Kontsekuentea izan zen amaieraraino, komunismoaren tendentzia “suntsitzaile ankerraren” aurka modu irekian agertuz eta klase borroka ororen gainetik bere jasokunde inpartziala alda-

27. Junkerrak: nekazal jabetzadun noble prusiarrak.

rrikatuz. Salbuespen oso arraroak izan ezik, Alemanian zirkulatzen duten sozialistak deituriko obra guztiak literatura hinguigarri eta sumingarri honi dagozkie²⁸.

2. SOZIALISMO KONTSERBADOREA EDO BURGESA

Burgesiaren zati batek gaitz sozialekin amaitu nahi du gizarte burgesa kontsolidatzeko helburuarekin.

Kategoria honetan aurkitzen dira ekonomistak, filantropoak, humanitarioak, langile klasearen zoria hobetu nahi dutenak, ongintza elkarteentzako antolatzaileak, animalien babesleak, neurritasun elkarteentzako fundatzaileak, mota guztietako etxerreformatzaileak. Eta sozialismo burgesa hau sistema osoak osatzeraino iritsi da.

Aipa dezagun adibide bezala Proudhonen Miseriaren Filosofia.

Sozialista burgesek gizartearen bizi baldintzak betierekotu nahi dituzte halaberrez beragandik sortzen diren borrokarik eta arriskurik gabe. Egungo gizartea nahi dute berau iraultzen eta deskonposatzen duten elementurik gabe. Proletariotik gabeko burgesia nahi dute. Burgesiak, naturala den bezala, bere agintepean dagoen mundua mundurik hoberena bezala errepresentatzen du. Sozialismo burgesak errepresentazio kontsolagarri honetatik sistema gutxi-asko osatu bat egiten du. Proletariotza bere sistema praktikan jartzera eta Jerusalem herrira sartzera gonbidatzen duenean, ez du, funtsean, egungo gizartean jarraituzera baino bultzatzen, baina gizarteagatik eratu den kontzeptzio gorrotagarritik desjabetuz.

Beste sozialismo mota bat, hain sistematikoa ez dena baina bai praktikoagoa, langileak mugimendu iraultzaile orotik bereizten saiatzen da, beraien onurarako izango dena ez dela aldaketa politiko bat edo bestea izango esanez, baizik eta bizi baldintza materialen, erlazio ekonomikoen, eraldaketa bat

28. 1848ko ekaitz iraultzaileak eskola miserable hau garbitu zuen eta bere jarraitzaileei sozialismoari buruz espekulatzen jarraitzeko gogo guztia kendu zien. Eskola honen ordezkari nagusia eta tipo klasikoa Karl Grün²⁹ jauna da. (Engelsen oharra 1890eko argitalpen alemaniarri).

29. Grün, Karl (1817-1887): publizista burgesa txiki alemaniarra.

baizik. Baina sozialismo honek, bizi baldintza materialen eraldaketa gisa ez du, inola ere, ekoizpen burgesaren erlazioen abolizioa ulertzen —zeina lortzea ez baita posible bide iraultzaileetatik baino—, ekoizpen burgesaren erlazioen oinarrien gainean eginiko erreforma administratibo batzuk soilik, eta beraz, kapitalaren eta soldatapeko lanaren arteko erlazioei ez die eragiten, kasurik onenean, burgesiari bere aginteak ekartzen dizkion gastuak murrizten soilik lagunduko dio eta bere Estatuaren administrazioa sinplifikatzen.

Sozialismo burgesak ez du bere espresio egokia lortzen figura erretoriko sinple bat bilakatzen denean baino.

Truke askea, langile klasearen mesedetan! Muga-sari babesleak, langile klasearen mesedetan! Presondegi zelularrak, langile klasearen mesedetan! Hona hemen sozialismo burgesaren azken hitza, bakarra, modu serioan esan duen bakarra.

Sozialismo burgesa baieztapen honetan laburtzen da zehazki: burgesak burgesak dira langile klasearen mesedetan.

3. SOZIALISMO ETA KOMUNISMO KRITIKO-UTOPIKOAK

Hemen ez gara ari iraultza moderno handi guztietan proletalgoaren errebindikazioak formulatu dituen literaturari buruz (Babeufen³⁰ idatziak, etab.). Proletalgoak bere klaseko interesak gailentzeko egin dituen lehen saiakera zuzenek, gizarte feudalaren suntsiketaren garaian eginak, eferbeszentzia orokorreko uneetan, nahitaez porrot egin zuten, bai proletalgoaren beraren garapen ahulagatik, bai bere emantzipaziorako baldintza materialen ausentziagatik ere, garai burgesaren ondorio gisa soilik sortzen diren baldintzen ausentziagatik alegia. Proletalgoaren lehen mugimendu hauen bidelagun den literatura iraultzailea, derrigorrez, bere edukiagatik, erreakzio-

30. Babeuf, François Noël (Graco ezizenez) (1760-1797): iraultzaile frantziarra, komunismo utopikoaren ordezkari nabarmendua. Elkarte sekretu bat antolatu zuen altxamendu armatu bat prestatu eta diktadura iraultzaile bat ezartzeko helburuz, masa herrikoien interesak defendatzeko. Konplota argitara eman zen eta 1797ko maiatzaren 27an Babeuf exekutatua izan zen.

narioa da. Aszetismo orokor bat eta igualitarismo zarpail bat goraipatzen ditu.

Propioki sistema sozialistak eta komunistak deiturikoek, Saint-Simonen, Fourierren, Owenen³¹ eta abarren sistemek, proletalgoaren eta burgesiaren arteko borrokaren haserako hastapen uneetan egiten dute euren agerpena, lehenago deskribatutako garaialdian (ikus “Burgesak eta proletarioak”).

Sistema hauen sortzaileak, gainera, klaseen arteko antagonismoaz konturatzen dira, eta era berean baita gizarte agintariko elementu suntsitzaileen ekintzaz ere. Baina ez dute ekimen historikorik nabaritzen proletalgoaren aldetik, inongo berezko mugimendu politikorik. Klase antagonismoaren garapena industriaren garapenaren parean doanez, proletalgoaren emantzipaziorako baldintza materialik ere ezin dute aurkitu, eta zientzia sozial baten bila abiatzen dira, baldintza hoiek sortzea ahalbidetuko duten lege sozial batzuen bila.

Ekintza sozialaren lekuan euren berezko buruargitasunaren ekintza jarri behar dute; emantzipaziorako baldintza historikoen lekuan, baldintza fantastikoak; proletalgoaren klaseko antolaketa gradualaren lekuan, beraiek asmatutako gizarte antolaketa bat. Munduaren etorkizuneko historia propagandara eta euren plan sozialen ejekuzio praktikora mugatzen da beraientzat.

Beraien planak taxutzean, gainera, ororen aurretik langile klasearen interesak defendatzeko kontzientzia dute, gehien sofritzen duen klasea delako. Proletalgoa beraientzat ez da existitzen gehien pairatzen duen klase gisa baino.

Baina klase borrokaren hastapeneko formak, hala nola beraien posizio sozialak, klase antagonismo ororen oso gainetik

31. Saint-Simongo kondea, Claude Henri de Rouvroy (1760-1825): sozialista utopiko frantziarra, erregimen kapitalista kritikatu zuen eta hau ordezkatzeko programa bat proposatu zuen, elkarketa printzipioetan oinarritutako gizarte bat eraikitzearen alde agertuz. Saint-Simonen iritziz gizarte berrian guztiek lan egin behar dute eta bakoitzaren papera bere lan merituen arabera izango da: industriaren eta zientziaren komunitatea bezalako ideiak bultzatu zituen, eta baita ekoizpen zentralizatu eta planifikatuarenak ere. Baina ukitu gabe uzten zituen jabeago pribatua eta kapitalaren gaineko interesak, borroka politikoari eta iraultzari uko egiten zion, proletalgoaren misio historikoa ulertu gabe: gobernuaren erreformek eta erlijio berri honekin gizartearen moralak hezitzeak klase kontraesanen desagertapenera eramango zuela pentsatzen zuen.

daudela kontsideratzera eramaten dituzte. Gizarteko kide guztien bizi baldintzak hobetu nahi dituzte, baita pribilejia-tuenak direnenak ere. Horregatik ez dute gizarte osoari deitu besterik egiten, bereizketarik egin gabe, eta klase agintaria-rengana ere lehentasunez zuzentzen dira. Zeren eta nahikoa da euren sistema ulertzea, gizarte posible guztietan hoberene-ko plan posible guztietan hoberena dela onartzeko.

Honengatik, ekintza politiko oro, eta bereziki, ekintza iraul-tzaile oro gaitzesten dute: beraien helburuak bide baketsuen bidez lortzea proposatzen dute, ebanjelio sozial berrirako bi-dea ereduaren indarrarekin irekitzen saiatuz, experimentu txikien bitartez, zeintzuek noski porrot egiten duten beti.

Etorkizuneko gizartearen deskribapen fantastiko hauek, proletalgoak, oraindik oso gutxi garaturik egonik, bere egoera ere modu fantastiko batean kontsideratzen duen garai batean eginak, langileen lehenengo aspirazioetatik datoz, gizartearen erabateko eraldaketaren susmo sakon batez beterik aurkitzen baitira.

Baina obra sozialista eta komunista hauek elementu kriti-koak ere gordetzen dituzte. Egungo gizartearen oinarri guz-tiak erasotzen dituzte. Eta modu honetan balio handiko mate-rialak eman dituzte langileak hezitzeko. Etorkizuneko gizar-teari buruzko tesi positiboek, esaterako hiriaren eta landaren arteko kontrastearen ezabapenak³², familiaren abolizioak, ira-bazi pribatuak eta soldatapeko lanak, harmonia sozialak eta Estatua ekoizpenaren administratzaile soil bilakatzeko eral-daketak; tesi hauek guztiek ez dute klaseen arteko antagonis-moaren ezereztea besterik adierazten, soilik perfilatzen has-ten ari den antagonismoa berau eta sistema hauen asmatzai-leek lehenengo forma bereiztezinak eta nahaspilatsuak bakarrik ezagutzen dituztenak. Honela, tesi hauek ez dute zentzu utopiko soil bat besterik.

Sozialismo eta komunismo kritiko-utopikoen garrantzia ga-rapen historikoaren kontrako norantzan doa. Klase borroka in-tentsifikatuz eta forma definituagoak hartuz doan heinean,

32. 1888ko argitalpen ingelesean, esaldi hau honako eran erredaktatua izan da: "Be-raiek proposatutako neurri praktikoak, hala nola hiriaren eta landaren arteko kontrastearen desagertzea".

bere gainetik jartzeko irrika fantastikoak, egiten zaion oposizio fantastiko horrek, balio praktiko guztia galtzen du, justifikazio teoriko guztia. Hona hemen zergatik aspektu askotan sistema hauen sortzaileak iraultzaileak baziren ere, beraien diszipuluek sorturiko sektak beti erreakzionarioak diren, beraien maisuen kontzeptzio zaharrei eusten baitie proletalgoaren ondorengo garapen historikoa eman baldin bada ere. Klase borroka trakestea eta antagonismoak kontziliatzea bilatzen dute, eta horretan kontsekuenteak dira. Beraien utopia sozialen experimentazioarekin amesten jarraitzen dute; falansterio isolatuak ezartzean, euren herrialdeetan home-coloniesak sortzean edota Ikaria txiki bat fundatzean³³, Jerusalem berriaren miniaturazko edizioa. Eta aireko gaztelu hauen guztien eraiketarako burgesen bihotz eta poltsikoen filantropiari dei egitera beharturik ikusten dira. Pixkanaka-pixkanaka gorago deskribaturiko sozialista erreakzionarioen eta kontserbadoreen kategoriara erortzen ari dira eta hauengandik pedanterkeria sistematikoago batengatik eta beraien zientzia sozialaren mirarizko eraginkortasunean duten fede superstizioso eta fanatikoagatik bereizten dira.

Horregatik daude langile klasearen mugimendu politiko ororen sumintzearen aurka, hauetan ez baitute ebanjelio berri batekiko fedeitsuaren faltaren emaitza besterik ikusten. Owenistek, Ingalaterran, kartisten³⁴ aurka erreakzionatzen dute, eta fourieristek, Frantzian, erreformisten aurka³⁵.

33. Falansterioak Charles Fourierrek proiektatutako kolonia sozialistak ziren. Ikaria Cabetek bere herrialde utopikoari eman zion izena zen eta gero bere Ameriketako kolonia komunistari eman ziona. (Engelsen oharra 1888ko argitalpen ingelesari).

Owenek bere elkarte komunistei "home-colonies" deitu zien. Falansterio Fourierrekin proiektatutako jauregi sozialisten izena zen. Ikaria Cabetek bere instituzioak deskribatzen zituen herrialde fantastiko-utopikoa zen. (Engelsen oharra 1890eko argitalpen alemaniarrari).

34. Kartismoa (charter, karta, hitz ingelesetik datorrena): langile ingelesaren masa mugimendu iraultzailea, egoera ekonomiko larriak eta eskubide politikoen gabeziak eragindakoa. Mugimendua 30. mendearen amaieran hasi zen manifestazio eta mitin izugarriekin eta hutsarteekin jarraitu zuen XIX. mendeko 50. hamarkadaren haseretaraino. Bere porrotak batez ere programa argi baten eta zuzendaritza iraultzaile kontsekuente baten faltatik etorri ziren.

35. La Réforme (Erreforma), Paris, 1843-1850: egunkariaren jarraitzaileak, errepublikaren eta erreforma demokratiko eta sozialen ezarpenaren alde borrokatzen zutenak.

IV. OPOSIZIOKO ALDERDI EZBERDINEKIKO KOMUNISTEK DUTEN JARRERA

II. kapituluan esandakoa eta gero, komunistek jada eraturik dauden langile alderdiekiko duten jarrera azalpen gehiago behar gabe azaltzen da, eta ondorioz baita Ingalaterrako kartistekiko eta Ipar Amerikako nekazal erreformaren alde daudenezikiko jarrera ere.

Komunistek langile klasearen berehalako helburu eta interesen alde egiten dute borroka; baina aldi berean, egungo mugimenduaren barnean, mugimenduaren beraren geroa ere defendatzen dute. Frantzian, komunistak Alderdi Sozialista Demokratikora³⁶ gehitzen dira burgesia kontserbadore eta erradikalaren aurka, baina beti ere tradizio iraultzaileak utzitako ilusioak eta topikoak kritikatzeko eskubideari uko egin gabe.

Suizan erradikalei babesa ematen die, baina alderdi hau elementu kontraesankorrez osaturik dagoela jakinda, hein batean estilo frantseseko sozialista demokratez, eta hein batean burges erradikalez.

36. Garai hartan, alderdi hau Ledru-Rollinek ordezkaturia zegoen, literaturan Louis Blanc-ek³⁷ eta eguneroko prentsan La Réforme-k. Sozialista Demokratiko izenak, bere asmatzaileen arabera, Alderdi Demokratikoaren edo Errepublikarraren zati bat adierazten zuen, ñabardura gutxi gora behera sozialistakoa. (Engelsen oharra 1888ko argitalpen ingelesari).

Garai hartan Frantzian Alderdi Sozialista Demokratikoa deitzen zena politikan Ledru-Rollinek ordezkaturia zegoen eta literaturan Louis Blanc-ek; beraz, gure garaiko sozialdemokrazia alemaniarretik mila legoatara aurkitzen zen. (Engelsen oharra 1890eko argitalpen alemaniarriari).

37. Ledru-Rollin, Alexandre-Auguste (1807-1874): publizista eta politikari frantziarra, demokrata burges txikiaren buruzagietako bat, La Réforme aldizkariaren zuzendaria, Behin-behineko Gobernuaren kidea 1848an.

Blanc, Louis (1811-1882): historialari eta sozialista burges txiki frantziarra, 1848-1849ko iraultzako pertsonalitateetako bat, burgesiarekiko kontziliazioaren alde agertzen zena.

Poloniarren artean, nekazal iraultza batean askapen nazionalerako baldintza ikusten duen alderdiari ematen diote babesa komunistek; hau da, 1846an Krakoviako matxinada³⁸ eragin zuen alderdiari.

Alemanian, Alderdi Komunistak burgesiaren alboan egiten du borroka, azken honek, era iraultzaile batean, monarkia absolutuaren, lur jabego feudalaren eta burgesia txiki erreakzionarioaren aurka borroka egiten duen neurrian.

Baina alderdi hau ez da burgesiaren eta proletalgoaren arteko antagonismo oldarkorraren inguruko kontzientzia argiena langileei buruan sartzeaz inoiz ahazten, langile alemaniarrek burgesiaren agintea ekarriko duten baldintza sozial eta politikoak berehala burgesiaren aurkako arma bilakatzen jakin dezaten, Alemaniako klase erreakzionarioak garaituak diren bezain pronto burgesia beraren aurkako borroka has dezaten.

Komunistek Alemanian ipintzen dute euren arreta nagusia, Alemania iraultza burges baten bezperetan aurkitzen baita eta iraultza hori zibilizazio europarreko baldintza aurrerakoienekin eramango baitu aurrera orokorrean, eta XVII. mendeko Ingalaterra eta XVIII. mendeko Frantzia baino proletalgo garatuago batekin, eta ondorioz, iraultza burges alemaniarra ez da iraultza proletarioaren berehalako preludioa baino izango.

Laburbilduz, komunistek egungo erregimen sozial eta politikoaren aurkako mugimendu iraultzaile guztiak babesten dituzte.

Mugimendu hauetan guztietan, lehen lekuan, oinarritzko aspektu bezala, jabegoaren auzia jartzen dute, honek duen forma gutxi-asko garatua edozein dela ere.

Azken batean, komunistek batasunaren alde egiten dute lan alde guztietan eta alderdi demokratikoen arteko akordioaren alde herrialde guztietan.

Komunistek duingabea kontsideratzen dute euren ideiak eta asmoak ezkutatzea. Modu irekian aldarrikatzen dute euren helburuak egungo ordena sozial osoa biolentziaz garaituz

38. Poloniaren askapen nazionala lortzeko helburuz 1846ko otsailean probintzia poloniarretan prestatzen ari zen altxamenduaren abiarazle garrantzitsuenak, demokrata iraultzaile poloniarrek ziren.

soilik lor daitezkeela. Klase agintariek iraultza komunista baten aurrean kokildu daitezela. Proletarioek ez dute ezer galtzeko euren kateak salbu. Bestalde, mundu bat dute irabazteko.

HERRIALDE GUZTIETAKO PROLETARIOAK, ELKAR ZAITEZTE!

K. Marxek eta F. Engelsek 1847ko abenduaren eta 1848ko urtarrilaren bitartean idatzia. Lehen aldiz foileto bereizitu batean alemanieraz argitaratua Londresen, 1848ko otsailean. 1890eko argitalpen alemaniarrean oinarrituz itzultzen da, 1848ko, 1872ko eta 1883ko argitalpenekin errepasaturik.

APENDIZEA

I

HITZAURREA 1872ko ARGITALPEN ALEMANIARRARI

Komunisten ligak, garaiko baldintzak kontuan harturik, noski, sekretuan bakarrik existitu ahal zitekeen langile erakunde internazionalak, 1847ko azaroan Londresen buruturiko kongresuan, argitalpenera zuzendua egongo zen partiduaren programa zehatz bat, aldi berean teoriko eta praktikoa, enkargatu zien izenpetzen duten hauei. Horixe da Manifestu honen jatorria, non bere eskuizkribua Londresera bidalia izan zen, inprimatua izan zedin, Otsaileko iraultza³⁹ baino aste batzuk lehenago. Lehenengoz alemanieraz argitaraturik, hizkuntza hone-tan, gutxienez, hamabi edizio ezberdin egin dira Alemanian, Ingalaterran eta Ipar Ameriketara. Ingeleraz lehenik Londresen agertu zen, 1850an, Red Republicanen Miss Helen Macfarlanek itzulia, eta geroago, 1871ean, gutxienez hiru itzulpen ezberdin argitaratu dira Ipar Ameriketara. Lehenengo aldiz frantsesez Parisen agertu zen, 1848ko ekaineko insurrekzioa-ren⁴⁰ bezperako egunetan, eta orain dela gutxi New Yorkeko Le Socialisten. Gaur egun, itzulpen berri bat prestua izaten ari da. Polonieraz edizio berri bat Londresen argitaratu zen lehenengo edizio alemaniarretik denbora gutxira. Ginebran errusieraz agertu zen, 60. hamarkadan. Danierara ere itzulia izan da, bere jatorrizko argitalpenetik gutxira. Nahiz eta azken hogeita bost urteotan baldintzak asko aldatu diren, Manifestu honetan azaldutako printzipio orokorrak gaur egun, oro har, osoki zuzenak dira. Puntu batzuk berriz ukituak izan beharko lukete. Manifestuak berak azaltzen du, printzipio hauen aplikazio praktikoa existitzen diren zirkunstantzia historikoen baitan egongo

39. Frantziako 1848ko Otsaileko iraultzari egiten dio erreferentzia.

40. 1848ko ekainaren 23-26ko proletalgo paristarraren matxinadari egiten dio erreferentzia, Europan 1848-1849 bitarteko iraultzaren garapeneko puntu gorena izan zenari.

dela beti eta toki guztietan, eta beraz, ez dela garrantzia berezirik ematen II. kapitulu bukaeran zenbatutako neurri iraultzaileei. Pasarte hau gaur egun modu ezberdin batean idatzia izan beharko luke aspektu bat baina gehiagotan. Kontuan harturik azken hogeita bost urteetan industria handiak izan duen garapena, eta honekin batera, langile klasearen partidua; Otsaileko iraultzaren esperientzia kontuan harturik lehenik, eta gero, gradu handiago batean oraindik, Parisko Komunarena⁴¹, lehen aldiz langileria, bi hilabetez, botere politikora altxatuz, programa hau zaharkitu egin da puntu batzuetan. Komunak erakutsi du, batez ere, “langile klasea ezin daitekeela mugatu besterik gabe Estatuaren makina dagoen bezala hartzera eta bere helburu propioak lortzeko honetaz baliatzera” (ikus Gerra zibila Frantzian, Langileen Erakunde Internazionaleko Kontseilu Orokorren Manifestua, K. Marx eta F. Engels, Idazlan hautatuak bi liburukietan, t. I, 504. orr., Progreso Ed. Mosku, non ideia hau zabalago agertzen den). Gainera, nabarmena den bezala, literatura sozialistaren kritika momentu hauetarako osatu gabea da, 1847rarte bakarrik iristen baita; eta aldi berean, komunistek oposizioko partidu ezberdinen aurrean dituzten jarrerak (IV. kapitulua) trazu orokorrean oraindik zehatzak badira ere, zaharkituak geratu dira bere xehetasunetan, egoera politikoa erabat aldatu delako, eta garapen historikoak han zenbatzen ziren alderdi gehienak lurretik ezabatu dituelako. Hala eta guztiz ere, Manifestua, jada aldatzeko eskubiderik ez daukagun dokumentu historiko bat da. Ondorengo edizio bat agian 1847 eta gure egunen artean dagoen hutsunea bete dezakeen hitzaurre batek lagundurik joango da; berrargitalpen hau guretzat hainbesteko ezustekoa izan da, non ez dugun denborarik eduki hori idazteko.

Karl Marx, Friedrich Engels
Londres, 1872ko ekainaren 24a.

41. 1871ko Parisko Komuna: Langile klasearen gobernu iraultzailea, Parisen iraultza proletarioak eratua; historiak ezagutzen duen proletalgoaren diktadurako lehen gobernua. 72 egun iraun zituen: 1871ko martxoaren 18tik maiatzaren 28ra.

II

HITZAURREA 1883ko ARGITALPEN ALEMANIARRARI

Zoritzarrez, bakarrik izenpetu behar dut edizio honen hitzaurrea. Marx, Europako eta Ameriketako langile klaseek beste inori baina gehiago zor dioten gizona, Highgateko hilerrian dautza, eta bere hilobiaren gaina jada lehenengo belarrak berdatzen du. Bere heriotzaren ondoren, zer esanik ez Manifestua berregiteaz edo osatzeaz. Uste dut, beraz, beharrezkoa dela hemen inplizituki ondoren datorrena gogoratzea.

Manifestu guztian barneraturik dagoen oinarritzko ideia, — hau da: produkzio ekonomikoa eta honetatik derrigorrez ondorioztatzen den estruktura soziala aldi historiko bakoitzean, aldi horretako historia politiko eta intelektuala sostengatzen duten oinarria direla; beraz, historia guztia (lurraren jabetza komunalaren erregimen primitiboaren deuseztapenetik), klasearteko borrokaren historia izan dela, klase zapaltzaile eta zapalduen arteko borroka, dominatzaile eta dominatuena, garapen sozialaren fase ezberdinetan; eta orain borroka hau fase batera ailegatu dela non, klase esplotatuak eta zapalduak (langileriak), ezin duen esplotatzen eta zapaltzen duen klasearengandik (burgesiarengandik) emantzipatu, aldi berean eta betirako, gizarte guztia esplotaziotik, zapalkuntzatik eta klasearteko borrokatik emantzipatu gabe—, oinarritzko ideia hau Marxi dagokio bakarrik eta eskusiboki⁴².

42. “Ideia honetara, nire ustez Historiarako Darwinen⁴³ teoria Biologiarako izan dena izatera deiturik dagoen honetara, 1845an baino lehen biok pixkanaka-pixkanaka jada hurbiltzen hasita geunden. Nik norabide horretan inpendienteki noraino egin nuen aurrera hobeto ikus daiteke nire Ingalaterrako langile klasearen egoera liburuan. Baina Bruselaren berriro ere Marxekin elkartu nintzenean, 1845eko udaberrian, berak jada tesi hau eraturik zuen eta hemen azaltzen ditudan bezain termino argietan azaldu zidan”. (1890eko argitalpen alemaniarrari F.Engelsek eginiko oharra).

43. Darwin, Charles Robert (1809-1882): Zientzialari ingelesa, biologia materialistaren fundatzailea. Lehenengoa izan zen, zientzia naturaletako datu

Askotan aitortu izan dut; baina orain hain justu, beharrezkoa da Manifestuaren beraren buruan adierazpen hau agertzea.

F. Engels
Londres, 1883ko Ekainaren 28a

ugari oinarritzat hartuta, natura bizidunaren garapenaren teoria argudiatzen eta mundu organikoak forma sinpleetatik forma konplexuetara eboluzionatzen zuela frogatu zuen, eta forma berrien sorrera eta zaharren desagertzea eboluzio historiko-naturalaren ondorioa dela. Darwinen teoriaren bizkar-hezurra espezieen sorreraren doktrina da, hautaketa naturalaren eta artifizialaren bitartez. Mutabilitatea eta herentzia organismoetatik be-reiztezinak zirela baieztatzen zuen. Bere iraupenaren alde animaliek edota landareek burutzen dituzten eraldaketa mesedegarriak kontsolidatu egiten dira eta animalia eta landare forma berrien agertzea determinatzen dute. Doktrina honen printzipioak eta oinarritzko frogak Espezieen jatorriaz (1895) liburuan aurkeztu zituen.

III

HITZAURREA 1888ko ARGITALPEN INGELESARI

Manifestua Komunisten Ligaren programa bezala argitaratu zen, langileen elkarte bat zena, haseran eskusiboki alemaniarra eta gero nazioartekoa, kontinente europarrean 1848aren aurretik zeuden baldintza politikoak zirela eta klandestinitatean jardutera beharturik zegoena. Ligaren Kongresu batean, Londresen 1847ko azaroan ospatua, Marxi eta Engelsi alderdiaren programa detailatu bat prestatzeko eskatu zitzaaien argitarapenerako, aldi berean teorikoa eta praktikoa izan behar zuena. 1848an, eskuizkribua, alemanieraz, amaitua izan zen, eta Frantziako otsailaren 24ko iraultza baino aste batzuk lehenago argitaratzaileari bidalia izan zen, Londresera. Itzulpen frantsesa Parisen 1848ko ekaineko intsurrekzioa baino pixka bat lehenago agertu zen. 1850ean, George Julian Harneyk editatutako Red Republican aldizkarian, lehenengo argitalpen ingelesa argitaratu zen Londresen, Miss Helen Macfarlaneen lumaren eskutik. Manifestua danieraz eta polonieraz ere inprimatua izan da. Parisko 1848ko intsurrekzioaren porrotak —proletalgoaren eta burgesiaren arteko lehen bataila handiak— bigarren lekura eraman zituen, aldi baterako, langile europearren aspirazio sozial eta politikoak. Ordutik, nagusigoarengatiko borroka, Otsaileko Iraultzaren⁴⁴ aurretik gertatzen zen bezala, klase agintariaren sektore ezberdinen artean bakarrik eman da; langile klaseak bere aktibitaterako eszenatoki politiko baten aldeko borrokara eta klase ertain erradikalen hegorik muturrekoena izatera mugatu izan behar zuen. Langile mugimendu independente oro errukirik gabe pertsegitua izan zen bizitza zantzuak agertzen zituen une oro. Honela, polizia prusiarrak Komunisten Ligaren Komite Zentrala lokalizatu zuen, Kolonian aurkitzen zena. Komiteko ki-

44. Ikus 39. oharra.

deak atxilotuak izan ziren, eta hemezortzi hilabeteko gartzelaratzearen ostean epaituak izan ziren 1852ko urrian. “Koloniako komunisten Prozesu” entzutetsu hau urriaren 4tik azaroaren 12rarte luzatu zen; salatuetakoz zazpi hiru eta sei bitarteko gartzela zigorretara kondenatuak izan ziren gotorleku batean. Sententzia argitara eman eta berehala Liga desegin zuten prozesuan aske geratu ziren kideek. Manifestuari dagokionean ahanzturan eroriko zela ematen zuen. Langile klase europarrak berriro ere klase agintarien aurka ekiteko nahikoa indar errekuuperatu zituenean, Langileen Nazioarteko Elkartea sortu zen. Baina elkarte honek, Europako eta Ameriketako proletalgo militante osoa bere barnean biltzeko helburuz sortu zenak, ezin izan zituen berehala aldarrikatu Manifestuan azaltzen diren printzipioak. Internazionalaren programak trade unions ingelesek, Frantzian, Belgikan, Italian eta Espainian Produhonen⁴⁵ jarraitzaileek, eta Alemanian lasallearrak⁴⁶ onartzeko bezain zabala izan behar zuen. Marxek, programa hau alderdi guztiak asebetetzeko moduan idatzi zuene-

45. Proudhon, Pierre Joseph (1809-1865): Publizista, ekonomista eta soziologo frantziarra, burgesia txikiaren ideologoa eta anarkismoaren fundatzaileetako bat. Proudhonek jabego pribatu txikia betierekotzea amesten zuen eta jabego kapitalista handia kritikatzeko, ikuspuntu burges txikietatik. “Herriaren Bankua” antolatzea proposatzen zuen, “doako kredituen” bitartez langileei ekoizpen baliabideak erostea ahalbidetuko ziena eta artisauek bilakatu. “Truke Bankuak” antolatzeko Proudhonek izan zuen ideia utopikoa ere erreakzionarioa izan zen, izan ere, banku honen bidez langileen produktuen “bidezko” salmenta segurtatuko zen eta aldi berean, honek ez zuen eraginik izango ekoizpen baliabideen jabego kapitalistan. Proudhonek ez zuen proletalgoaren paper historikoa ulertzen, jarrera ezkorra zuen klase borrokaren, iraultza proletarioaren eta langile diktaduraren aurrean, eta posizio anarkistetatik abiatuta, Estatuaren beharra ukatzen zuen. Marxek eta Engelsek proudhonistek I. Internazionalan euren kriterioak ezartzeko egindako saiakeren aurka kontsekuenteki borrokatu zuten. Marxek gogorki kritikatu zuen Proudhonen doktrina Filosofia-ren Miseria bere lanean.

46. Lasallearrak: F. Lasalle burges txiki sozialista alemaniarraren aldekoak eta jarraitzaileak, Alemaniako Langileen Elkarreko Orokorreko kideak, 1863an fundatua Leipzig-eko langile elkarten Kongresuan. Bere lehen presidentea Lasalle izan zen, Batasunaren programa eta taktikaren oinarriak ezarri zituen. Langile klasearen masa alderdi baten eraketa, dudarik gabe, aurrerapausu izugarri bat izan zen Alemaniako langile mugimenduari garapenean. Halaber, Lasallek eta bere jarraitzaileek posizio oportunist-

an, langile klasearen garapen intelektualean konfidantza osoa zuen, zeina ezinbestez eratorriko zen ekintza bateratuen eta eztabaidaren bidetik. Kapitalaren aurkako borrokaren gertakariak eta gorabeherak, porrotek garaipenak baino gehiago, langileei euren panazea gustokoenak aski ez zirela erakusten zieten eta bidea prestatzen zuten langile klasearen emantzipaziorako egiazko baldintzen ulermen hobe bat izateko. Eta Marxek arrazoi zuen. 1874ko langileak, Internazionalaren disoluzioaren garaikoak, ez ziren, ezta gutxiagorik ere, 1864ko berberak, Internazionala fundatua izan zen garaikoak. Proudhonismoa Frantzian eta lassalleanismoa Alemanian hiltzorian zeuden, eta trade unions ingeles kontserbadoreak ere, gehienak Internazionalarekiko lotura oro Internazionala bera desagertu baino lehen apurtu zituztenak, pixkanaka-pixkanaka euren Kongresuaren presidenteak kongresuaren izenean honako hau esan behar zuenaren momentura hurbiltzen ari ziren, iaz Swansean: “Sozialismo kontinentalak jada ez gaitu beldurtzen”. Hain zuzen ere, Manifestuaren printzipioak modu zabalean hedatu dira herrialde guztietako langileen artean. Honela bada, Manifestua berriro ere lehen planoan ipini zen. Testu alemaniarra, 1850etik, hainbat aldiz berrargitaratu zen Suitzan, Ingalaterran eta Iparramerikan. 1872an New Yorken ingelesera itzulia izan zen eta Woodhull and Claflin’s Weekly aldizkarian argitaratua. Bertsio ingeles hau frantsesera itzulia izan zen eta New Yorkeko Le Socialisten agertu zen. Orduetik, itzulpen ingeles pare bat edo gehiago, akats gehiagorekin edo gutxiagorekin, agertu ziren Iparramerikan eta hauetako bat Ingalaterran berrargitaratua izan zen. Lehenengo itzulpen errusiarra, Bakuninek egina, Herzengo Kólokolen⁴⁷ inprentan aargitaratu zen Ginebran, 1863 aldera; bigarrenak, Vera Za-

ta bat hartu zuten oinarritzko auzi teoriko eta politikoen inguruan. Estatu prusiarra arazo sozialak konpontzeko erabili zitekeela uste zuten eta Bismarckekin, gobernu prusiarren buruarekin, elkarriketak izaten saiatu ziren. Marxek eta Engelsek hainbatetan kritikatu zituzten lasallearren teoria, taktika eta antolaketa printzipioak, langile mugimendu alemaniarreko korrante oportunistatzat hartuz.

47. “Kolokol” (Kanpaia): A. Herzen eta N. Ogariov demokrata iraultzaileek 1857 eta 1867 bitartean argitaratutako egunkari demokratiko-iraultzailea; 1865 arte Londresen argitaratu zen, eta geroago, Ginebran.

súlich heroikoak eginak⁴⁸, 1882an ikusi zuen argia Ginebran. Danierazko edizio berri bat Socialdemokratisk Bibliotheken argitaratu zen, Kopenhagen 1885ean; urte berean Parisen frantsesezko itzulpen berri bat agertu zen Le Socialisten. Azken honetatik Madrilen, 1886an, bertsio espainiar bat prestatu eta argitaratu zen. Hau alemaniarrazko berrargitalpenak ahaztu gabe, gutxienez hamabi izan direnak. Armenierazko itzulpen batek, duela hilabete batzuk Konstantinoplan argitaratua izan behar zuenak, ez du argirik ikusi, ulertu dudana-gatik, argitaratzaileak Marxen izenean zihoan liburu bat ateratzeko beldurra baitzuen eta itzultzaileak ez baitzuen Manifestua berak eginiko obra bat bailitzan argitaratu nahi. Beste hizkuntzetan eginiko geroagoko itzulpenen berri badut, baina ez ditut ikusi. Eta honela, Manifestuaren historiak langile klasearen mugimendu modernoaren historia islatzen du modu esanguratsu batean; ezbairik gabe, egun, literatura sozialistako obrarik difundituena da, internazionalena, milioika langilek onartutako plataforma amankomuna, Siberiatik hasita Kaliforniararte. Halaber, idatzi genuenean ezin izan genion Manifestu Sozialista deitu. 1847an sozialista, alde batetik, sistema utopikoen aldeko guztiei deitzen zitzaien: owenistei⁴⁹ Ingalaterran eta fourieristei⁵⁰ Frantzian, jada sekta soil izatera murrizturik zeudenak eta pixkanakako desagerpen prozesuan sarturik zeudenak; eta bestetik, enplastu ezberdinekin gaitz sozialak kapitala eta irabazia kaltetu gabe ezereztuko zituzte-

48. Itzulpena G.Plejanovi dagokio. Engelsek hala adierazi zuen beranduago Er-lazio sozialak Errusian artikuluaeren epilogoan.

49. Owenistak: Robert Owen (1771-1858) sozialista utopiko ingelesaren aldekoak eta jarraitzaileak. Owenek kritika zorrotza egin zien erregimen kapitalistaren oinarriari, baina ezin izan zituen kapitalismoaren kontraesanean benetako sustraiak bilatu. Desberdintasun sozialen kausa garrantzitsuenaren instrukzioaren gutxiezigiko difusioa zela kontsideratzen zuen, eta ez kapitalismoaren berezko ekoizpen modua, eta arazoa jakinduriaren zabalpenaren eta erreforma sozialen bitartez konponduko zela uste zuen, hauen inguruko programa zabal bat aurkeztu zuelarik. Etorkizuneko gizarte "arrazionala" autoadministratutako komuna txikien federazio aske baten itxuran ikusten zuen. Hala ere, bere ideiak praktikara eramateko egin zituen saiakera guztiek porrot egin zuten.

50. Fourieristak: Charles Fourier sozialista utopiko frantziarraren aldekoak eta jarraitzaileak. Fourierrek erregimen burgesaren kritika gogorra eta sa-

la esaten zuten petrikilo sozial mota guztiei. Bi kasuetan, langile mugimendutik at aurkitzen zen jendea eta babesa batez ere klase “ikasietan” bilatzen zutena. Bestalde, iraultza politiko sinpleen askieztasunaz konbentzitzera iritsi eta gizarte osoaren oinarritzko eraldaketa baten beharra aldarrikatzen zuten langile klasearen zatiari garai hartan komunista deitzen zitzaion. Hastapeneko komunismo trakets bat zen, erabat instintiboa; halaber, garrantzitsuenaz ohartzeko gai izan zen eta nahikoa indar erakutsi zuen langile klasean komunismo utopikoa sortzeko, Cabetena Frantzia eta Weitlingena Alemanian⁵¹. Honela, sozialismoa, 1847an, klase burgesaren mugimendu bat zen, eta komunismoa langile klasearena. Sozialismoa, kontinentean behintzat, gauza “errespetagarria” zen; komunismoa, guztiz kontrakoa. Eta guk haseratik “langile klasearen emantzipazioa langile klasearen beraren lana” izango denaren printzipioa defendatzen genuenez, ez zegoen zailtarik bi izendapenen artean zein aukeratu behar genuen erabakitzeko. Are gehiago, gerora ez zaigu sekula izen hari uko egiterik bururatu.

Manifestua gure obra amankomuna bada ere, beharturik ikusten nahiz oinarritzko tesia, beraren nukleoa, Marxi dago kiola esatera. Tesi honek zera baieztatzen du, garai historiko

kona eskeini zuen eta etorkizuneko gizarte “armoniko” baten koadroa marraztu zuen, giza pasioen ulermenean oinarritua. Iraultza biolentoen aurka zegoen eta etorkizuneko gizarte sozialistara falansterio (lan elkarte) eredu-garrien propaganda baketsuaren bitartez igaro zitekeela suposatzen zuen. Falansterio hauetan lan borondatezkoa eta erakargarria gizakiarentzat behar bat bilakatuko zen, baina halaber, Fourier ez zen jabetza pribatua abolitzearen aldekoa eta bere falansterioetan aberatsak eta txiroak zeuden.

51. Cabet, Étienne (1778-1856): publizista burges txiki frantziarra, komunismo utopikoaren ordezkarien artean gailentzen denetako bat. Erregimen burgesaren gabeziak gizartearen eraldaketa baketsuaren bidez ezabatu zitezkeela irizten zuen. Bere ideiak Bidaia bat Ikariara (1840) liburuan azaldu zituen eta praktikara eramaten saiatu zen Amerikan komunitate komunista bat antolatuz. Baina bere experimentuak erabateko porrotean amaitu zuen. Weitling, Wilhelm (1808-1871): Alemaniako langile mugimenduaren sorreraren garaiko pertsonalitate nabarmendua, komunismo “igualitario” utopikoaren teorikoetako bat. Engelsen arabera, Weitlingen irizpideek paper positiboa jokatu zuten “langilego alemaniarren lehenengo mugimendu teorio independente” gisan, baina komunismo zientifikoa agertu zenean proletalgoaren klase kontzientziaren garapena oztopatzen hasi ziren.

bakoitzean, ekoizpen ekonomikoaren eta trukearen modu nagusiak eta hontatik eratortzen den antolaketa sozialak nahitaez beraien gainean jasotzen den eta honek bakarrik azaltzen duen garaiko historia politiko eta intelektualaren oinarria osatzen dutela, eta beraz (gizarte gentilizio primitiboaren desegitearen ostean, euren lurraren jabego komunalarekin) gizateriaren historia osoa klaseen arteko borrokaren historia bat izan dela, esplotatzaileen eta esplotatuen arteko borroka bate-na, klase agintariena eta klase zapalduena; klase borroka horien historia iraultzen zerrenda bat dela, eta egun iritsi den garapen mailagatik klase esplotatua eta zapaldua —proletalgoa— ezin dela klase esplotatzaile eta agintariaren uztarritik askatu —burgesiarenetik— aldi berean eta betirako gizarte osoa esplotazio, zapalkuntza, klase zatiketa eta klase borroka orotik askatu gabe.

Ideia honetara, nire ustez Historiarako Darwinen teoria Biologiarako izan dena izatera deiturik dagoen honetara, 1845an baino lehen biok pixkanaka-pixkanaka jada hurbiltzen hasita geunden.

Nik norabide horretan independententeki noraino egin nuen aurrera hobeto ikus daiteke nire Ingalaterrako langile klasearen egoera liburuan. Baina Bruselaren berriro ere Marxekin elkartu nintzenean, 1845eko udaberrian, berak jada tesi hau eraturik zuen eta hemen azaltzen ditudan bezain termino argietan azaldu zidan. 1872ko argitalpen alemaniarrari eginiko hitzaurrearen ondorengo hitz hauek zititzen ditut, biok bate-ra idatzitakoa:

“Nahiz eta azken hogeita bost urteotan baldintzak asko aldatu diren, Manifestu honetan azaldutako printzipio orokorrak gaur egun, oro har, osoki zuzenak dira. Puntu batzuk berriz ukituak izan beharko lukete. Manifestuak berak azaltzen du, printzipio hauen aplikazio praktikoa existitzen diren zirkunstantzia historikoen baitan egongo dela beti eta toki guztietan, eta beraz, ez dela garrantzia berezirik ematen II. kapitulu bukaeran zenbatutako neurri iraultzaileei. Pasarte hau gaur egun modu ezberdin batean idatzia izan beharko luke aspektu bat baina gehiagotan. Kontuan harturik azken hoge-

ta bost urteetan industria handiak izan duen garapena, eta honekin batera, langile klasearen partiduarena; Otsaileko iraultzaren esperientzia kontuan harturik lehenik, eta gero, gradu handiago batean oraindik, Parisko Komunarena, lehen aldiz langileria, bi hilabetez, botere politikora altxatuz, programa hau zaharkitu egin da puntu batzuetan. Komunak erakutsi du, batez ere, “langile klasea ezin daitekeela mugatu besterik gabe Estatuaren makina dagoen bezala hartzera eta bere helburu propioak lortzeko honetaz baliatzera” (ikus Gerra zibila Frantzian, Langileen Erakunde Internazionalako Kontseilu Orokorren Manifestua, K. Marx eta F. Engels, Idazlan hautatuak bi liburukietan, t. I, 504. orr., Progreso Ed. Mosku, non ideia hau zabalago agertzen den). Gainera, nabarmena den bezala, literatura sozialistaren kritika momentu hauetarako osatu gabea da, 1847rarte bakarrik iristen baita; eta aldi berean, komunistek oposizioko partidu ezberdinen aurrean dituzten jarrerak (IV. kapitulua) trazu orokorrean oraindik zehatzak badira ere, zaharkituak geratu dira bere xehetasunetan, egoera politikoa erabat aldatu delako, eta garapen historikoak han zenbatzen ziren alderdi gehienak lurretik ezabatu dituelako. Hala eta guztiz ere, Manifestua, jada aldatzeko eskubiderik ez daukagun dokumentu historiko bat da.”

Honako itzulpen hau Mr. Samuel Moore-i dagokio, Marxen Kapitalaren zati handienaren itzultzaileari. Biok batera errepasatu dugu itzulpena eta ohar batzuk gehitu dizkiot aipamen historikoak azaltzeko.

Friedrich Engels
Londres, 1888ko urtarrilaren 30ean.

IV HITZAURREA 1890eko ARGITALPEN ALEMANIARRARI

Aurretik dagoena⁵² idatzi zenetik hona igaro den denboran zehar, beharrezkoa bilakatu da Manifestuaren alemanierazko argitalpen berri bat, eta interesa du hemen Manifestuarekin erlazionaturiko gertakatiak gogoratzeak.

Errusierazko bigarren itzulpen bat —Vera Zasúlich-ek egin— Ginebran agertu zen 1882an; Marxek eta nik hitzaurrea erredaktatu genion. Tamalez, alemanieraz zegoen eskuizkribu originala⁵³ galdu dut eta errusieratik berritzuli behar dut, baltare onuragarria ez dena testuarentzako: Hau dio:

“Alderdi Komunistaren Manifestuaren lehen argitalpen errusiarra, Bakuninek itzulia, 60.eko hamarkadaren haseran⁵⁴ egin zen Kólokolen inprentan. Garai hartan, lan honen errusierazko argitalpen batek Mendebaldean kuriositate literario baten itxura izan zezakeen soilik. Egun, halako kontzeptu bat ezinezkoa litzateke.

“Mugimendu proletarioaren orduko ekintza eremu mugatua (1847ko abenduan) Manifestuaren azken kapituluak erakusten du inork baino hobeto: Oposizioko alderdi ezberdinekiko komunistek duten jarrera herrialde ezberdinetan. Errusia eta Estatu Batuak, bereziki, ez ziren aipatuak izan. Errusiak erreakzio europar osoaren azken erreserba handia osatzen zuen garaia zen eta Estatu Batuetarako emigrazioak Europako proletalgoaren indar soberakinak xurgatzen zituen garaia. Bi herrialde hauek Europa lehengaiez hornitzen zuten eta, aldi bere-

52. Engels 1883ko argitalpen alemaniarriari eginiko bere hitzaurreaz ari da.

53. Original hau geroago aurkitua izan zen.

54. Aipaturiko edizioa 1869an argitaratu zen. Engelsek 1888ko edizio ingelesari eginiko hitzaurrean zehaztasun gehiegirik gabe aipatzen du Manifestuaren errusiarerrako itzulpenaren agerpenaren data.

an, ekoizpen industrialak bertan saltzeko merkatuak ziren. Bika, beraz, era batera edo bestera, Europaren garaiko ordenaren zutabeak ziren.

“Zein aldaturik dagoen dena! Hain zuzen ere Ipar Ameriketarako emigrazio europarrak nekazaritzaren garapen izugarria egin du posible, konpetentzia honek Europako lur jabego handiaren eta txikiaren zimenduak kolokan jartzen dituelarik. Hauxe izan da, gainera, Estatu Batuei halako energiarekin eta halako proportzioetan bere baliabide industrial izugarrien esplotazioari ekiteko aukera eman diona, epe labur batean Mendebaldeko Europaren, eta batez ere Ingalaterraren monopolio industrialarekin amaituko duena. Bi gertakari hauek era berean modu iraultzaile batean eragiten duten Ipar Amerika berarengan. Etxaldean jabeen nekazal jabego txikia eta ertaina, erregimen politiko iparramerikar osoaren harri angularra, jausten ari da hazienda handien konpetentziagatik, eskualde industrialek bien bitartean, lehen aldiz, proletalgo ugari bat sortzen dutelarik kapitalen kontzentrazio izugarri batekin batera.

“Eta Errusian? 1848-1849ko iraultza gertatu zenean ez Europako monarkek bakarrik, baita burgesia europarrak ere, esku-hartze errusiarra salbaziorako bide bakar bezala ikusten zuten proletalgoaren aurka, zeina esnatzen hasirik zegoen. Tsarra erreazio europarraren buru bezala goraiatua izan zen. Orain, Gatchinan, iraultza-
ren gerra-presoa da⁵⁵, eta Errusia Europako mugimendu iraultzailearen abangoardian aurkitzen da.

“Manifestu Komunistak jabego burges modernoaren desagerpen hurbila eta ekidin ezina aldarrikatzea hartu zuen bere eginkizun bezala. Baina Errusian, sortze bidean diren fraude kapitalistaren eta lur jabego burgesaren

55. Alejandro II enperadorearen hilketaren osteko egoerari buruz ari da, 1881eko martxoaren 1ean “Herriaren Borondatearen” kideek burututako ekintza. Alejandro III.a, tronura igo zena, ez zen Gatchinatik irteten esku-hartze iraultzaileen eta “Herriaren Borondatearen” ekintza posibleen beldur. “Herriaren Borondatea” ekintza armatuak burutzen zituen erakunde politiko sekretua zen.

loraldi biziaren alboan, nekazariak amankomunean lurraren erdia baino gehiagoren jabeak direla aurkitzen dugu. Ondorioz, galdera hau da: nekazal komunitate errusiarra —lurraren jabego komunal primitibotik oso desnaturalizaturik dagoena, bestalde— gai izango al da zuzenki jabego kolektiboaren forma gorenagora, forma komunistara, igarotzeko, edota honen aurretik Mendebaldearen garapen historikoak suposatzen duen lur komunalaren disoluziotik igaro beharko al du aurrena? Auzi honi gaur egun eman dakiokegun erantzun bakarra honako hau da: iraultza errusiarrak Mendebaldeko iraultza proletariorako seinale bat ematen badu, egungo Errusiako lurraren jabego amankomunak garapen komunistarako abiapuntu bezala balioko du.

Karl Marx, Friedrich Engels
Londres, 1882ko urtarrilaren 21a”.

Polonierarako itzulpen berri bat garai hartan agertu zen Ginebran: Manifest Kommunistyczny. Gerora beste itzulpen bat agertu da danieraz Socialdemokratisk Bibliotheken, Kopenhagen 1885ean. Tamalez, ez da itzulpen oso bat; oinarritzko pasarte batzuk, dirudienez itzulpen zailtasunengatik, kenduak izan dira, eta orokorrean, pasarte batzuetan negligentzia zantzuak nabarmentzen dira, are negargarriagoak itzultzaileak arreta pixka bat gehiago jarri izan balu bikaina izango zela ikusten denean itzulpenaren gainerako zatian. 1885ean itzulpen frantses berri bat agertu zen Parisko Le Socialisten; orain arteko hoberena da. Hontatik espainierarako itzulpen bat egin zen, urte berean, haseran Madrilgo El Socialistan argitaratu zena eta ondoren foileto batean: Manifiesto del Partido Comunista, por Carlos Marx y F. Engels, Madrid. Administracion de El Socialista, Hernan Cortes, 8. Kuriositate bezala esan behar dut 1887an Konstantinoplako editore bati armenierazko itzulpen baten eskuizkribua eskeini zitzaiola; baina gizon zintzo hark Marxen izena agertuko zen lan bat inprimatzeko adorerik ez zuen izan, eta itzultzailea autore bezala azaltzea hobetu iruditu zitzaion, honek proposamenari uko egin ziolarik. Ingaterran hainbat aldiz itzulpen iparramerikar ez hain zehatz

batzuk berrargitaratu ostean, behingoz, 1888an, itzulpen jator bat agertu zen. Nire lagun Samuel Moore-i dagokio, eta biok errepasatua izan da inprimatu aurretik. Izenburu bezala honako hau darama: “Manifesto of the Communist Party, by Karl Marx and Frederick Engels. Authorized English Translation, edited and annotated by Frederick Engels. 1888. London, William Reeves, 185 Fleet st. E. C.”. Argitalpen honetan nik itzulpen ingeleserako idatzitako ohar batzuk erreproduzitu ditut.

Manifestuak bere historia propioa du. Bere agerpenaren unean sozialismo zientifikoaren abangoardia ez ugariak irrikaz onartua (lehenengo hitzaurrean aipatutako itzulpenek frogatzen duten bezala), segituan bigarren maila batera baztertua izan zen langile paristarren 1848ko ekaineko porrotaren ostean ekindako erreakzioa zela eta, eta “legez” proskribatua izan zen Koloniako komunisten kondenaren ondorioz, 1852ko azaroan⁵⁶. Eta Otsaileko iraultzarekin hasi zen langile mugimendua eszenatoki publikotik desagertu zenean, Manifestua ere bigarren planora igaro zen.

Langile klase europarrak klase agintarien boterearen aurka ekiteko adina indar errekuperatu zituenean, Langileen Nazioarteko Elkartea sortu zen. Honek Europako eta Ameriketako langile klase borrokalari osoa ejertzito izugarri batean biltzeko helburua zuen. Ezin zuen, beraz, Manifestuan azalduko printzipioetatik abiatu. Trade unions ingelesei, proudhoniano frantsesei, belgikarrei, italiarrei eta espainiarrei eta lassallear alemaniarrei⁵⁷ atea itxiko ez zien programa bat behar zuen. Programa hau —Internazionalaren Estatutuen ai-

56. Gobernu prusiarrak makinatutako prozesu probokatzailari buruz ari da (1852ko urriaren 4tik azaroaren 12ra). “Komunisten Liga” (1847-1852) nazioarteko erakundearen 11 kide prozesatu ziren, “traizio gorenako izaerako konplot” baten antolatzaile bezala akusaturik. Dokumentu eta testigantza faltsuak erabiliz zazpi prozesatuak izan ziren hiru eta sei urte bitarteko kartzela zigorretara kondenatuz.

57. Pertsonalki, Lasallek, gurekin zituen erlazioetan, Marxen “diszipulu” bat zela aitortzen zigun beti, eta dizipulu bezala, Manifestuaren eremuan ipintzen zen. Beste zerbait gertatzen zen Estatuaren kredituen bidezko ekoizpen kooperatiben aldeko exijentzietatik igaro ez ziren bere jarraitzaileekin, zeintzuek langile klasea Estatuaren laguntza zuten langileetan eta euren laguntza propioa besterik ez zuten langileetan bereiztu zuten. (F.Engelsen oharra).

tzin solasa⁵⁸— Marxek erredaktatua izan zen Bakuninek berak eta anarkistek ere onartu zioten maisutasunez. Manifestuan azaldutako tesien erabateko garaipenerako, Marxek langile klasearen garapen intelektualean soilik zuen konfidantza, zeina ekintza bateratuaren eta eztabaidaren bidetik etorriko zen ezinbestean. Kapitalaren aurkako borrokako gertakariek eta gorabeherak, porrotek garaipenak baino gehiago, ordurarte haietan sinestu zuten panazea guztiak ez zirela aski ikusarazi besterik ez zieten egiten borrokalariei eta gaituagoak bilakatzeko. Eta Marxek arrazoi zuen. 1874ko langile klasea, Internazionala existitzeari utzi zion garaikoa, oso desberdina zen 1864koarekiko, Internazionala fundatu zen garaiarekiko. Proudhonismoa herrialde latinoetan eta lassalleanismoa zehazki Alemanian hiltorian zeuden, eta orduko trade unions ingelesak, ultrakontserbatzaileak, pixkanaka-pixkanaka euren Swanseako Kongresuko presidentek, 1887an, honako hau esango zuen momentura ari ziren hurbiltzen: “Sozialismo kontinentalak jada ez gaitu beldurtzen”. Baina 1887an, sozialismo kontinentalak ia eskusiboki Manifestuan formulatzen den teoria zen. Eta honela, puntu jakin bateraino, Manifestuaren historiak 1848tik honako langile mugimendu modernoaren historia islatzen du. Gaur egun, zalantzarik gabe, literatura sozialista zabalduea, internazionalena da, herrialde guztietako milioika langilaren programa amankomuna, Siberiatik Kaliforniararte.

Eta hala ere, argitaratu zen unean ezin izan genion Manifestu Sozialista deitu: 1847an, sozialista izenak bi pertsona kategoriatara biltzen zituen. Batetik, sistema utopiko ezberdinen jarraitzaileak, batez ere owenistak Ingalaterran eta fourieristak Frantzian, pixkanakako desagerpen prozesuan zeuden sekta soilak besterik ez zirenak jada. Bestetik, euren panazea anitzekin eta mota guztietako enplastuekin gaitz sozialak kapitala eta irabazia, apur bat ere kaltetu gabe, ezereztu nahi zituzten petrikilo sozial ezberdinak. Bi kasuetan, langile mugimendutik at aurkitzen zen jendea eta babesa batez ere klase “ikasietan” bilatzen

58. Ikus: K.Marx. Langileen Nazioarteko Elkartearen Estatutu Orokorrak.

zuten. Bestalde, iraultza politiko soilen askieztasunaz konbenztiturik, gizartearen eraldaketa erradikal bat exijitzen zuen langileen zatiari komunista deitzen zitzaion garai hartan. Ia landu gabeko komunismo bat zen, instintiboa soilik, batzuetan traketse: baina guztiz indatsua izan zen komunismo utopikoaren bi sistema sortzeko: Frantzian, “ikarioa”, Cabetena, eta Alemanian, Weitlingena. 1847an sozialismoak mugimendu burges bat izendatzen zuen; komunismoak, langile mugimendu bat. Sozialismoa, kontinentean behintzat, oso errespetagarria zen; komunismoa guztiz kontrakoa zen. Eta guk garai hartan “langile klasearen emantzipazioa langile klasearen beraren lana” izan behar duenaren printzipioari ausartki eusten genionez, ezin izan genuen zalantzarik eduki bi izendapenen artean aukeratzekoan. Eta gerora ez zaigu sekula ere hari uko egiterik bururatu.

Herrialde guztietako proletarioak, elkar zaitezte! Ahots gutxi batzuk erantzun ziguten hitz hauek munduan zehar jaurtiki genituenean, duela berrogeita bi urte, proletalgoak bere errebindikazio propioak planteatu zituen lehenengo iraultza paristarraren bezperetan. Baina, 1864ko irailaren 28an, Mendebaldeko Europako herrialde gehienetako proletarioak Langileen Nazioarteko Elkartea sortuz elkartu ziren, memoria loriatsukoa. Egia da Internazionala soilik bederatzi urtetan zehar bizi-tu izan zela, baina herrialde guztietako proletarioengan ezarritako betiereko batasuna oraindik bizirik dago eta inoiz baino indartsuago dirau, eta ez dago froga hobeagorik gaurko egun hau baino. Izan ere gaur, lerro hauek idazten ditudan une honetan, Europako eta Ameriketako proletalgoa bere indarrei errebista pasatzen ari da, lehen aldiz ejertzito bakar batean mobilizatuz, bandera bakar batenpean eta berehalako helburu batekin: zortzi orduko lan egunaren ezarpen legala, 1866an Internazionalaren Kongresuak eta berriro ere Parisko Langile Kongresuak 1889an aldarrikatua. Gaurko ikuskizunak herrialde guztietako kapitalistei eta lurjabe handiei, herrialde guztietako proletarioak elkarturik daudela erakutsiko die.

Oh, Marx nire alboan egongo balitz bere begiekin ikusteko!

F. Engels

Londres, 1890eko maiatzaren 1ean.

V

HITZAURREA 1892ko ARGITALPEN POLONIARRARI

Manifestu Komunistaren edizio poloniar berri bat beharrezkoa izateak, hausnarketa ezberdinetara gonbidatzen du.

Lehenbizi, azken aldietan zehar, Manifestua, modu batean, Europako industria handiaren garapenaren indize bat izatera pasa dela azpimarratzea komeni da. Herrialde batean industria handia garatzen den heinean, herrialde honetako langileen artean beraien egoera ulertzeko nahia hazten ikusten da, langile klasearena bere baitan, jabeen klaseari dagokionean; beraien artean mugimendu sozialista garatzen ikusten da eta Manifestuaren aleen eskaria hazten. Horrela bada, hizkuntza batean zabaldutako ale hauen zenbatekoak ez du langile mugimenduaren egoera, zehaztasun nahikoz, determinatzea ahalbidetzen bakarrik, baita herrialde bakoitzean industria handiak duen garapen maila ere.

Horregatik Manifestuaren edizio poloniar berriak Polonia-ko industria handiaren garapen erabakigarria adierazten du. Ez dago dudarik horrelako garapena benetan azken ediziotik pasa diren hamar urteetan eman dela. Polonia Errusiarra, Kongresukoa⁵⁹, Inperio Errusiarreko lurralde industrial handi bat izatera pasa da. Industria handi errusiarra sakabanaturik dagoen bitartean —zati bat Finlandiako golkoaren kostan aurkitzen da, beste bat erdialdeko probintzietan (Mosku eta Vladimir), bestea Itsaso Beltzeko eta Azoveko Itsasoko litoraletan, etab.—, industria poloniarra erlatiboki eremu txiki batean kontzentraturik dago eta horrelako kontzentrazio baten abantaila eta desabantaila guztiez gozatzen du. Abantailak fabrikatzaile errusiarrek onartzen dituzte, Poloniaren aurkako arantzelak aldarrikatzean, poloniar guztiak errusifikatzeko

59. Kongresuko Polonia: "Poloniako Erreinua" izen ofizialarekin Errusiaren menpe geratu zen Poloniaren zatia, Vienako Kongresuko akordioen arabera (1814-1815).

desira itsua duten arren. Desabantailak —fabrikatzaile poloniarrentzat eta gobernu errusiarrarentzat— langile poloniarren artea ideia sozialisten zabaltze azkarrean eta Manifestuaren eskari progresiboan oinarritzen dira.

Baina industria poloniarren garapen azkarrak, industria errusiarrarena gaudituz, aldi berean herri poloniarren energia agortezinaren eta bere etorkizuneko jaiotza nazionalaren froga berri bat adierazten du. Polonia independente eta indartsu baten birsortzea ez da poloniarrei bakarrik interesatzen zaien auzia, beste guztioi ere interesatzen zaigu. Nazio europarren kolaborazio onestu bat, hauetako bakoitza bere etxearen erabateko jabea denean bakarrik izango da posible. 1848ko iraultzak, azkenean eta gerora proletarioen bandera azpian borrokatzen zutenak burgesiari babak eltzetik ateratzera baino gehiagora eramanez bazituen ere, bere testamentu-betearazleen aldetik —Luis Bonaparte eta Bismarck⁶⁰— Italiaren, Alemaniaren eta Hungariaren independentzia burutu ditu. Baina aldiz Polonia, 1792an iraultzarengatik beste hiru herrialde horiek batera baina gehiago egin zuena, 1863an bere zorira bertan behera utzia izan zen, hamar aldiz handiagoak ziren errusiar indarren⁶¹ bul-

60. Napoleon III (Louis Bonaparte) (1808-1873): Napoleon I.aren iloba, Bigarren Errepublikaren presidentea (1848-1851) eta Frantziako enperadorea (1852-1870).

Bismarck, Otto Eduard Leopold von (1815-1898): Prusiako eta Alemaniako estatu-gizona eta diplomatikoa. Bere barne eta kanpo politikan junkerren eta burgesia handiaren interesen arabera mugitzen zen. Harrapakin gerren eta zortzeko ekintza diplomatikoen bidez 1871n Alemaniaren batasuna lortu zuen Prusiaren hegemoniarenean. Inperio Alemaniarraren Kantzilerra izan zen 1871-1890 bitartean. “1848ko iraultzak, bere aurretik eman diren askok bezala, etorkizun nahiko arraroa izan du. Hauek zapaldu zituztenak bilakatu ziren, Marxek zioen bezala, beraiei testamentuaren betearazleak. Louis Napoleon Italia bakar bat eta independente bat sortzera beharturik ikusi zen. Bismarkek Alemania bere erara irauli behar izan zuen eta Hungariari nolabaiteko independentzia itzuli...” (Engels, Langile klasearen egogerra Ingalaterran liburuari edizio ingeleserako hitzaurrea).

61. 1863an Inperio errusiarraren parte ziren probintzia poloniarrek ekin zioten altxamendu nazional-askatzaileari egiten zaio erreferentzia. Tsarraren tropek krudeltasunez zapaldu zituzten. Altxamenduaren buruzagiek, tendentzia kontserbaduristakoek, Mendebaldeko Europako potentzien gobernuengan ipinia zuten esperantza hauen esku-hartzeren batek lagunduko ote zien, baina hauek ez ziren kudeaketa diplomatikoetatik baino haratago joan eta altxatuak traizionatu zituzten.

tzadaren aurrean amore ematen ari zenean. Noblezia poloniarra ez zen gai izan bere independentzia babesteko ezta birkonkistatzeko ere; gaur egun, burgesiari, Poloniaren independentzia gutxienean, bost axola zaio. Baina hala ere, nazio europarren kolaborazio harmoniko baterako, independentzia hau behar bat da. Eta langileria poloniar gaztearengandik bakarrik izango da konkistatua. Bere eskuetan, bere etorkizuna ziur dago, Europako beste langile guztientzat Poloniaren independentzia langile poloniarrentzat bezain beharrezkoa baita.

VI HITZAURREA 1893ko ARGITALPEN ITALIARRARI

Irakurle italiarrei

Alderdi Komunistaren Manifestuaren argitarapena, horrela esate arren, 1848ko martxoaren 18ko jardunaldiarekin batera egokitu zen, Milango eta Berlineko iraultzekin batera, erdi gu-neak hartzen dituzten bi nazioetako insurrekzio armatuak izan zirelarik: bata kontinente europarrean, bestea Mediterraneoan; ordura arte, bere lurren zatiketagatik eta barne desadostasunengatik ahuldurik, atzerriko indarren menpe erortzera eramandako bi nazio. Italia enperadore austriarraren agintearen menpe zegoen bitartean, Alemaniaren gainean pisatzen zuen zama —Errusia guztietako Tsarrarena— ez zen xamurragoa, zeharkakoagoa bazen ere. 1848ko martxoaren 18ko ondorioek Italia eta Alemania desohore honetatik askatu zuten. 1848 eta 1871 artean, bi nazio handiak berrezarriak izan ziren eta, modu batera edo bestera, bere independentzia berreskuratu zuten, eta gertakizun hau, Karl Marxek esaten zuen bezala, 1848ko iraultza zapaldu zuten pertsonak, euren atsekaberako, bere testamentu-betearazleak izan zirelako eman zen.

1848ko iraultza, toki guztietan, langile klaseak eginiko lana izan zen: berak altxa zituen barrikadak eta berak arriskatu zuen bizia. Baina Pariseko langileak bakarrik izan ziren, go-bernua eraistean, erregimen burges guztiarekin amaitzeko asmo benetan argia izan zutenak. Eta, jada bere klasearen eta burgesiaren artean existitzen den antagonismo menderaezinaz kontzientzia bazuten ere, ez herrialdearen garapen ekonomiko-ak ez eta Frantziako langile masen garapen intelektualak ez zuten oraindik berreraikitze sozial bat aurrera eramatea bai-menduko zuen maila lortu. Hemen, iraultzaren fruituak, azke-nik, klase kapitalistaren eskuetan amaitu zutenaren zergatia. Beste herrialdeetan, Italian, Alemanian, Austrian, langileek, lehenengo momentutik, burgesiari boterea hartzen lagundu

bestarik ez zuten egin. Baina burgesiaren agintea ez da posible inongo herrialdeetan independentzia nazionalik gabe. Horregatik, 1848ko iraultzak, ordura arte konkistatu ez zituzten nazioen batasunera eta independentziara eramane behar zuten: Italia, Alemania, Hungaria. Poloniak jarraituko die. Horrela, beraz, nahiz eta 1848ko iraultza ez zen iraultza sozialista bat izan, azken honentzat bidea garbitu eta lurra prestatu zuen. Erregimen burgesak, herrialde guztietan industria handiaren garapenari eman zion bultzada handia dela eta, azken berrogeita bost urteen baitan proletalgo ugari, indartsu eta elkartu bat sortu du eta horrela —Manifestuko espresioa erabiltzearen— bere lurperatzaileak produzitu ditu. Nazio bakoitzaren independentzia eta batasuna birlortu gabe, ez da posible proletarioen batasun internazional bat sortzea ezta helburu komunen lorpenerako nazio hauen kooperazio baketsu eta burutsua ere. Akaso posible al da langile italiar, hungariar, alemaniar, poloniar eta errusiarren ekintza bateratu eta internazionala ematea 1848rarte existitzen ziren baldintza politikoetan?

Honek, 1848ko borrokak ez direla alferrik galdu esan nahi du; ez dira alferrik galdu ere, aldi iraultzaile hartatik banatzen gaituzten berrogeita bost urteak. Bere fruituak heltzen hasi dira, eta desiratzen dudana guztia, italiarrerako itzulpen hau proletalgo italiarraren garaipenerako seinale on bat izatea da, jatorrizkoaren argitarapena iraultza internazionalerako izan zen bezala.

Manifestuak kapitalismoak iraganean emandako zerbitzu iraultzaile guztiei erabateko justizia egiten die. Lehenengo nazio kapitalista Italia izan zen. Erdi aro feudalaren amaiera eta aro kapitalista garaikidearen argitzea italiar baten irudi erraldoiak markatzen du, Dantek, aldi berean Erdi Aroko azken poeta eta garai modernoetan lehenengoa izan zenak. Orain, 1300ean bezala, aro historiko berri bat despuntatzen hasi da. Emango al digu Italiak aro proletario berri baten jaiotza markatuko duen Dante berria?

F. Engels
Londres, 1893ko Otsailaren 1a

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

- 1 • Manifestu komunistari hitzaurrea
- 2 • Ezkerkeria, komunismoaren haurtzaroko eritasunari hitzaurrea
- 3 • Etengabeko Iraultzari hitzaurrea
- 4 • Che Guevararen ondarea eta Latinoamerikako iraultza
- 5 • Estatua eta Iraultzari hitzaurrea
- 6 • Zer da sozialismoa?
- 7 • Marxismoa eta artea

Liburuxka hauek EUSKAL HERRIA SOZIALISTA aldizkariak argitaratu ditu Federiko Engels Fundazioaren laguntzarekin.

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA aldizkaria edo liburuxkak jasotzeko, gurekin kolaboratzeko, marxismoari buruzko hitzaldiak antolatzeko edo ideia hauekin interesatua bazaude:

JARRI HARREMANETAN:
euskalherriasozialista@hotmail.com
TEL.: 685 720 939
www.euskalherriasozialista.net

FEDERIKO ENGELS FUNDAZIOA

MARXISMOAREN KLASIKOAK bilduma

- | | |
|---|---------------------|
| 1. El manifiesto comunista | C. Marx y F. Engels |
| 2. El Estado y la revolución | V.I. Lenin |
| 3. Las Tesis de Abril | V.I. Lenin |
| 4. La enfermedad infantil del 'izquierdismo' en... | V.I. Lenin |
| 5. Acerca de los sindicatos | León Trotsky |
| 6. Reforma o revolución | R. Luxemburgo |
| 7. Huelga de masas, partido y sindicato | R. Luxemburgo |
| 8. Qué es el marxismo / Su moral y la nuestra | L. Trotsky |
| 9. Salario, precio y ganancia / Trabajo asalariado... | C. Marx |
| 10. El 18 Brumario de Luis Bonaparte | C. Marx |
| 11. La guerra civil en Francia | C. Marx |
| 12. Crítica del programa de Gotha / Erfurt | C. Marx / F. Engels |
| 13. Problemas de la vida cotidiana | L. Trotsky |
| 14. El manifiesto comunista (català) | C. Marx / F. Engels |
| 15. Anarquismo y comunismo | E. Preobrazhenski |
| 16. La crisis de la socialdemocracia | R. Luxemburgo |
| 17. Contribución al problema de la vivienda | F. Engels |
| 18. L. Feuerbach y el fin de la filosofía... | C. Marx / F. Engels |
| 19. Introducción a 'Dialéctica de la naturaleza' (y otros) | F. Engels |
| · El origen de la familia, la propiedad privada y el Estado | F. Engels |
| · La revolución permanente | L. Trotsky |
| · La revolución traicionada | L. Trotsky |
| · La lucha contra el fascismo | L. Trotsky |
| · 1905 | L. Trotsky |
| · Terrorismo y comunismo | L. Trotsky |
| · La revolución española (1930-39) - Selecc. de escritos | L. Trotsky |

KRIKA MARXISTA bilduma

- | | |
|---|-----------------------|
| · Razón y revolución. | |
| · Filosofía marxista y ciencia moderna | A. Woods / T. Grant |
| · Rusia, de la revolución a la contrarrevolución | Ted Grant |
| · Lenin y Trotsky, qué defendieron realmente | T. Grant / A. Woods |
| · Bolchevismo, el camino a la revolución | Alan Woods |
| · La revolución bolivariana. Un análisis marxista | Alan Woods |
| · Euskal Herria y el socialismo. | |
| · Marxismo y cuestión nacional | Alan Woods y Eloy Val |
| · Apuntes revolucionarios. | |
| · Cuba, Venezuela y el socialismo internacional | Celia Hart |
| · En defensa de la Revolución de Octubre | Varios autores |

LANGILE MEMORIA bilduma

- | | |
|--|---------------------|
| · Rebelión obrera en Tejas y Ladrillos | José Martín |
| · 3 de marzo. Una lucha inacabada | Arturo Val del Olmo |
| · Carrier. Lecciones de una lucha | Felipe Palacios |

